



PATXI ZABALETA

«ETAren erabakia ez da
EA eta Batasunaren
akordioaren ondorio»

Larrun gehigarria

Ramón Flecha,
gizartea eraldatu
nahi duen
eskolaz

Maribi Bilbao aktorea

«Mundua
adorea dutenena
da, ez negarrez
alfer-galtzen
direnena»

Zahartzaroa


Adinekoek
parte-hartze
handiagoa
eskatzen dute

Espainiako lan erreforma

Debaldeko
kaleratzeak libre

Joseba Tapia

Bigarren Gerra
Karlistaz kantari
itzuli da



Badakigu nola, nora dakigulako...
Bihotzak gidatzen gaitu,
euskaraz, beti euskaraz,
kilometroak milimetro.

Ongi etorri Lezora.





Azaleko argazkia:
DANI BLANCO

Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Joxe Mari Irazusta. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Ezaguirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaiz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza Teknikoa: Aloña Sorraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Olatz Kortza.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3 eskuinta. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: 13. P.K. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: Adur Software Productions. S.Koop. Elk. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak
diruz lagundua



GIPUZKOA
zurekin, aurrera»



gizarte
kutxa



• **NON ZER** •

2010eko irailaren 26a, 2.245. zenbakia

Deabruaren abokatua

- **Maider Bedaxagar:** «Nork erran zūan musikarekin kantatū behar zela?». ARITZ GALARRAGA / 4

Asteko gaia

- **Zahartzaroa.** Gizartean beste leku baten bila. UXUA LARRETXE / 5

Pertsonaia

- **Marivi Bilbao:** «Bihotza buruan dago». SUSTRAI COLINA / 10

Gaiak

- Ikasgelatik trainerura. ARAITZ MUGURUZA / 15

Iritziak

- **Ttakun (h)errenka** Ardura. ANA URKIZA / 22
- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENETA / 23
- Kontalaritza zer ote? JOXEMARI CARRERE / 24
- **Txandan** Irailak 11. IGOR ESTANKONA / 24
- Brasil 2010: hauteskundeak. IÑAKI BARCENA / 25
- **Hiruko txikian** Beldurak. JOXEMARI OSTOLAZA / 25
- **Bertso berriak** Begi zimurtuetatik. MIREN ARTETXE / 26

Erdiko kaiera

- **Gregorio Galvez:** «U2 bezalakoak ekartzeko ez dira aproposak diru-laguntzak». IKER BARANDIARAN / 27
- Karliberaleen errepublikara bidaia gerraren gorrian. GORKA BEREZIARTUA / 30
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 31
- **Liburuak** ARITZ GALARRAGA / 32
- **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 33
- **Ezpalak** JON TORNER / 34
- **Abarrak** GORKA BEREZIARTUA, MIKEL GARCIA / 35
- **Zientzia eta teknologia** JOXERRA AIZPURUA / 36
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 37
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

Termometroa

- **Patxi Zabaleta:** «Batasunak ere urrats gehiago eman nahi du». MIKEL ASURMENDI / 39
- **Espainiako lan erreforma.** Lan merkatu merkea, ezegonkorra eta malgua. DANIEL UDALAITZ / 42
- **Gaztezulok 10 urte.** Ilusio handiz, eta kezkatuta. ONINTZA IRURETA AZKUNE / 44
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA, XABIER LETONA / 46
- **Net Hurbil** Matt Simons, «Peak Oil»-aren propagandista. PELLO ZUBIRIA / 48

Azkena

- Aurrezki kutxak. MIKEL IRIZAR / 50



“Nork erran züan musikarekin kantatü behar zela?”

Maider Bedaxagar | Amaren Alaba

Eta aitarena. Eta semearena.
Eta espiritu santuarena, amen.

ARITZ GALARRAGA

Argazkia: Allande Sokarros

Bedaxagar, Bedaxagar... ezagun egiten zait abizen hori. Amaren Alaba ez, aitarena zara zu!

10 urte nüanean Amaren Alaba bilakatü nü-dian, beste sei ahizparekin batean... Bena aita hor izan ez balitz ez nüdükek sekülan Amaren Alaba izanen eta oraino gütiago, ama hor izan ez balitz, sekülan ez amaren alaba.

Amaren Alabak, beraz, zergatik, injustizia historiko baten konpontzeko?

Etxahunek erran zian “hanitxen gisa baditit bi ama amiagarri, enea eta Euskadi”. Non da mina?

Aizu, ahizpekin egun osoa ematen duzu kantari, edonon.

Hartako diagü sortü taldea. Düala hiru urte gure lehen diska plazaratü diagü. Gure lotsa handia zian diska bat egitean jenteak ez güntila haboro kümitatüko kantaldietara! Beharre, ez dük hola agitü, eta jarraitzen diagü Eüs-kal Herriko plazetan kantan.

Euskal Herriko plazetan, ezen ez bazterretan?

Nik maite diat bazterra, eta maite ditiat bazterresak. Bazterretarik iküsirik mündüa ez dea ederrago? “Bazterretik bazterriala, oi mündiaren zabala”. Niko Etxarten aita ezinago untsa kantatzen dik hori.

Periferia dugu modako hitza, bai.

Lehentze hitz hori ikasi nian kolegioan nintzelarik, geroztik ez diat behin ere baliatü. Zer erran nahi dü?

Periferiak? Zuberotarsak galdetzea ere!

Xiberoa periferian dea ala? Ez erran hi ere,

Xiberoaren “exotismoan” sinesten düan horietakoa hizala... *Agur Xiberoa* kantatzean *zütit* erraiteko partez *zütit* ahozkatzen düen horietakoa hiza? Hi egiazko hegoaldiarra!

Belarriko medikua kontent izango duzue, hain gora iristen zarete kantuan...

Bostmendietan kantatü diagü behin, eta üda honetan Orhi kaskolat heldü gütü. Mementoan ez gütü gorago heldü...

A capella zergatik abesten duzue, krisi ekonomikoagatik?

Ez, sinpleki jentearen aitzinean leial eta ümil agertzeko.

Kaletik biluzik ibiltzea bezalakoa omen da a capella kantatzea...

Eta üda betean beroki eta galtza lodiekin ateratzea bezala da musikarekin kantatzea... Kantore batetan, kantorea bera dük jaun eta jabe, zertako behar lizate musikaz estali? Nork erran züan musikarekin kantatü behar zela?

Pixka bat punkia zara zu, e; ondo emango lizuke gitarra elektrikoak.

Müsika maite diat, bena ez diat gozatzen musikarekin kantatzea. Zer kanta genezake gitarra elektrikoarekin? Segür ere ez *Arranoa Bortietan* edo *Oibaneko Zubainetan*. Ütz deza-gün gitarra elektrikoa Bizardunak bezalako talde bati!

Txirula akaso ez, baina adarra ederki jotzen duzu zuk!

Prefosta! Zentako uste dük elkarrizketa güzia xiberotarrez egin düdala? ■

• ASTERKO GAIA •

Zahartzaroa

Gizartean beste leku baten bila

Zahartzen ari da biztanleria, geroz eta adineko jende gehiago dugu inguruan, baina gaitasunez eta esperientziaz beteriko pertsonatzat hartu beharrean, zokoratu egiten ditugu sarri. Gizartean beste eginkizun batzuk betetzea aldarrikatzen dute beraiek.

UXUA LARRETXEA

ALBERTO ELOSEGI



ZER DA ZAHARRA IZATEA? Galderak zentzugabea dirudien arren, erantzun bat baino gehiago sorrarazten ditu. Markel Olano Gipuzkoako ahaldu nagusiak EHUKo Udako Ikastaroetan esan bezala, “zahartzea oso gauza erlatiboa da, 30 urtekoa zaharra izan baitaiteke futbolari izateko”. Gaiari beste itzuli bat emanda, Madrileko La Paz Unibertsitate Ospitaleko Javier Barberok honakoa gehitu zuen ikastaroan: “Badago jendea 30 urterekin hiltzen dena eta 80 urterekin lurperatzen duguna”. Norberak eman diezaiokeen zentzuaz harago, gehien hobesten den definizioa da pertsona zaharra 65 urtetik gorakoa dela. Datu hori aintzat hartzen badugu, gaur egun Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan bost pertsonatik bat zaharra da. Adin talde horretako pertsonen geroz eta baldintza fisiko eta mental hobeak dituzte, eta hortaz, gizarteko hainbat alorretan parte hartzeko moduan daude. Halere, SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroko Joseba Zalakainen esanetan, zaharrez hitz egiterakoan hainbat ñabardura hartu behar dira kontuan: “Zaharrak asko dira eta askotarikoak, euren artean ezberdintasun ugari baitaude, gazteen artean baino gehiago”. Datuak asko aldatzen dira 65 edo 95 urteko pertsona baten inguruan hitz egiten badugu. Sexua litzateke beste aldagai bat, bai-eta hezkuntza edo klase soziala ere.

Zein egiteko dute gure artean adineko pertsonen? Elisabet Arrieta soziologoak eta EHUKo irakasleak dioenez, “zaharrek rol ikusezina betetzen dute gizartean, aisialdiarekin eta gehienetan ekintza pasiboekin loturikoa”. Pertsona batek lan profesionala uzten duenean, gizartearentzat ikusezin bilakatzen da. Horri gehitu behar zaio zaharra izateak gure artean zentzu ezkorra duela. Izan ere, Ramon Bayes Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko irakaslearen aburuz, “denok nahi dugu zahartzarora iritsi, baina inork ez du zaharra izan nahi”. Bere esanetan, zaharra zeken, kexati, gogaikarri, zurrin, zorrotz, berekoi, errepikakor eta tankera horretako adjektiboekin lotzen da sarri. Gaztetasunaren apologia egiten duen gizartean, zahartzaroa arazo gisa bizi dugu, eta ez gaitasunez beteriko adin moduan.

Nolanahi, zaharrak erabateko integrazioan bizi ez diren arren, ez daude erabat baztertuta, integrazio inperfektuan bizi dira. Zaharren inguruko ikuskera ezkorrek menpekotasun eta pasibotasun sozialaren irudia eskaintzen du eta irudi hori adineko jendearen izaerari erantsten zaio; euren buruaren irudi negatiboa sortzen die, eta gizartean esku-hartzerik ez duten objektu soil bilakatzen dira. Ikuskera hori, baina, ez da erreala, SIIS-eko kide Zala-

kainen hitzetan: “Zahartzaroa ez da menpekotasunarekin, ezintasunarekin eta zerbitzu sozialekin lotu behar, asko jota zahar guztien %13 baita menpekota eta %25 inguru ezintasunen bat duena”. Beraz, egun zahar gehienak osasuntsuak dira.

Aipatu aurreiritziei gehitu behar zaio sistema kapitalistak ekonomiaren ikuspuntutik sailkatzen dituela giza taldeak: produktiboa zara edo ikusezina. Edonola, zaharrek geroz eta diru gehiago dute eta euren parte-hartzea kontsumitzaile bezala indartu egin da: “Zaharren artean txirotasun errealtatearen kopurua murrizten joan da, eta aldiz, gazteena igo egin da. Hain zuzen, gazteen eta haurren artean dago txirotasun arrisku handiena”. Horren erakusle da Txirotasun eta Desberdintasun Sozialen Inkestak 2008an emandako datua: EAEn 65 urte baino gehiagoko pertsonen gidaturiko familietan, txirotasun erreala %1,3koa zen; biztanleria guztia aintzat harturik %3,2koa; eta gazteek gidaturikoetan, %9,8koa. Horren ildora, Arrietak gogorarazi du krisi garai hauetan zenbait gazteri guraso edo aitona-amonek laguntzen dietela ekonomikoki.

Zaintzaile lanetan

Bada zaharrek betetzen duten rol aktibo bat: bilobak edo menpekotasunen bat duten pertsonak zaintzea. Askotan senarra edo emaztea da laguntza behar duen hori, edo familiarikoa beste kideren bat. EAEn, 25.000 zahar daude laguntzaile moduan lanean –zaintzaile guztien %30–. Boluntario lanetan ere kopuru handia dabil, 65 urtetik gorako 5.000 pertsona inguru. Arrietaren esanetan, “zaharrek funtzio hori betetzen dutela ikusten du gizarteak, baina ez dute horregatik aitortzen jasotzen”.

Jarduera profesionalen, Europako beste herriei alderatuz EAEn 65 urtetik gorako pertsonen lan gutxi egiten dutela nabarmendu du SIIS-eko kideak, eta horrek ez du erretiro adinarekin zerikusirik, haren iritziz. Imersoren (Zaharren Institutu eta Zerbitzu Sozialak) arabera, 65 urtetik gorakoen %60 lanean jarraitzearen alde dago.

EHUKo ikastaroan, egungo erretiro ereduaz kexu agertu zen Ramon Bayes unibertsitate irakaslea, adinean oinarrituriko derri-gorrezko erretiroa diskriminazioa iruditzen baitzaio. Erretiro legala onartu eta babestu behar den lorpen soziala iruditzen zaio, baina erretiro pertsonalizatua bilatu beharko litzateke: “Lanaz nazkatuta dagoen 60 urteko pertsona bati erretiroa ukatzea bezain zentzugabea da erabat eraginkorra den eta bere lanarekin disfrutatzen duen 65 urteko beste bati lana egitea eragoztekoa”.

Zalakainek ere ondo ikusten du erretiro eredu hori. Bere ustez, erretiroa lan motaren arabera ezarri beharko litzateke, eta hortaz, kasu batzuetan arauak gogortzearen eta besteetan leuntzearen aldekoa da. “Ondo ikusten dut meategian edo eraikuntzan lan egiten duena irakaslea edo kazetaria baino lehenago erretiratzea”. 66-68 urterekin oraindik lanean dagoenak pentsio hobea jasotzea ere babestu du, bai eta erretiro partzialak sustatzea ere; hau da, erretiroa prozesu gradual moduan planteatzea, ordutegi murriztua ezarriz. “Orain, errelebo kontratua dago 60 urte dituztenentzat, baina zergatik ez 65 urtekoentzat ere? Zaharren parte-hartzea handitu egin behar da lan eremuan, beti ere borondatzeak bada eta baldintza fisiko eta mentalak kontuan hartuta, noski”.

Ez dira gizarte inplikatzeko

Bestalde, datuek erakusten dute zaharrak ez direla oro har gizarte jardueretan gehiegi inplikatzeko. Egunean batez beste gazteek baino bost ordu gehiago izan arren, denbora hori ez dute *aktibatze*ko aprobetxatzen. Alderdi politikoetan, sindikatuetan, kirol nahiz erakunde profesionaletan lan egiteari denbora gutxi eskaintzen diote gainontzeko herritarrekin alderatuz gero, baina aldi berean gehiago esku hartzen dute talde erlijiosoetan, boluntario elkarteetan eta aisialdiko taldeetan. Parte hartzen duten emakumeak gehiago dira gizonak baino, baita hiri inguruan bizi direnak eta formazio hobea dutenak ere.

Zalakainek nabarmendu digunez, jubilatutako ondoren %40ak ez dio jarduerari berri bati ekiten (dela kirola, eskulanak edo turismoa). Gainera, hezkuntza maila altuagoa dutenak ere ez dute jarduerari kultural askotara jotzen —ez kontsumitzaile gisa, ez sortzaile moduan—. Alor horietan parte-hartzea sustatu behar dela uste du Zalakainek: “Beharbada joera hori ematen da ez delako beraien artean nahi adina sustatu, ez dutelako ohiturarik”.

"Zahartzaroa ez da menpekotasunarekin, ezintasunarekin eta zerbitzu sozialekin lotu behar, asko jota zahar guztien %13 baita menpekota eta %25 inguru ezintasunen bat duena"



DANI BLANCO

"Zaharren parte-hartzea zaharren elkarteetara beharrean erakunde orokorretara bideratu beharko litzateke: politika, ekonomia, kultura, arlo zibila. Hainbat belaunaldirekin harremanetan jartzeko modua izango lukete, ghettoak saihestuz"

JOSEBA ZALAKAIN, SIIS

Atxurra Hotela

Arronategi auzoa z/g
Bermeo (Bizkaia)
Tel. 944 654 404
www.hotelatxurra.com



DANI BLANCO

Zaharren inguruko ikuskera ezkorrek menpekotasun eta pasibotasun sozialaren irudia eskaintzen du (goiko argazkian, zahar etxe bat). Ordea, adineko jendeak asko du eskaintzeko, bizitzako hainbat arlotan.

Hala, 65 urtetik gorako pertsonen %43ak uste du gizarteko eremu guztietan presentzia handiagoa eduki beharko luketela.

Zein rol jokatu beharko lukete?

Egungo jubilatuek aldarrikatzen dute gizartean beste leku bat izatea, beste eginkizun batzuk betetzea. Elisabet Arrietaren iritziz, “potentzial handia dira eta asko dute eskaintzeko; horrenbestez, gizarteak hori aprobeztatzea ezinbestekoa da”. Euren baloreak eta esperientzia dira, besteak beste, galtzen utzi ezin diren gaitasunetako batzuk. Baina nola bideratu daiteke egiteko hori? Adibidez, indarrak batu asmoz eta gizartean beste pisu bat izan nahian, EHUKo Esperientzia Geletatik elkarte asko sortu dira; hala nola, Secot Gipuzkoa (Gipuzkoako Pertsona Helduen Elkarte), Hartu-emanak (Bilboko Pertsona Helduen Elkarte) eta Helduen Hitza



MIKEL GARCIA



DANI BLANCO

(Donostiako Pertsona Helduen Elkarte). Zaharrei laguntza eta orientazioa eskaintzen diete eta elkartean baitan lan egiteko aukera ere badago.

Dena den, Zalakainek uste du zaharrek gizartean duten parte-hartzea zaharren elkar-teetara beharrean erakunde orokorretara bideratu beharko litzatekeela; erakunde politikoetara, bizilagunen elkar-teetara, Gober-nuz Kanpoko Erakundeetara edo talde kul-turaletara, esaterako. Parte-hartzea lau eremutan zehazten du bereziki: politika, eko-nomia, kultura eta arlo zibila. Modu horretara, hainbat belaunaldirekin harremanetan jar-tzeko modua izango lukete eta ghettoak saihestuko lirateke. Argi utzi du halaber zaharrek jokatzeko duten rola baloratzeko nahitaezkoa dela ordainpekoak ez diren lanak goraipatzen hastea, boluntario lana, besteak beste.

Profesionalki izan dezaketen esperientzia aprobetxatzeko ere, egon badaude ekimenak: adinekoek gidaturik, proiektu profesionalak bideratzeko eta horien inguruko iritzia emateko antolatutako egitasmoak. Horrez gain, lan arloko beste aukera bat izan daiteke enpresetan zaharren kontseilu gisakoak eratzea, enpresetan aditu gisa jarduteko. Arriarentzat hori ez litzateke erabat onuragarria izango, finean euren profil bereko jendearekin egongo liratekeelako harremanetan, eta ez da belau-naldien arteko harremana bermatzen.

Teknologia berrien garrantzia

Joseba Zalakainek uste du zaharrei zuzenduriko baliabide gutxi daudela, eta gainera, daudenean ere ez dituztela gehiegi erabiltzen. Hor zerikusia izan dezake baliabide horiek eurentzat arrotzak izatea, informazio teknologiekin gertatzen den moduan. Eusko Jaurlaritzak kaleraturiko *Zaharrek parte hartzeko plan integralaren alde* txostenean agertzen denez, teknologia berrietara sarbidea izatea aktibatzailea izan daiteke pertsona zaharrentzat. Informazioa, ideiak eta ezagu-

tza orokorra jasotzeko aukera ematen die, eta horrek pertsona guztien integrazioa errazten du.

Adinekoek jokatzaren duten rola baloratzeko nahitaezkoa da ordainpekoak ez diren lanak goraipatzen hastea, boluntario lana, besteak beste

Politika publikoek, aldi berean, zeresan eta zeregin handia dute zaharren integrazioa eta parte-hartzea bultzatzeko. SIIS-eko kidearen arabera, menpekotasun egoeran daudenak edo arazoak dituztenak babesteko politikak egiten hasi dira, baina oraindik ez dago zaharren inguruko politika integralik. “Gazteen, haurren edo familien politikak egiten dira,

baina zaharrenak beti asistentziazkoak edo laguntzazkoak izaten dira. Era berean, eta kontraesana badirudi ere, adin guztiei begira etxebizitza, garraio, errenta edo kultura politikak egin beharko lirateke”, denen beharrei erantzuteko zeharkako politikak gauzatu behar baitira.


Erakunde publikoek eta gizarteko gainontzeko taldeek adineko jendearen parte-hartzea sustatu dezaketen arren, beraiek ere badute zeresanik, euren gaitasunen, esperientziaren eta baloreen bitartez gizartea bera aberasten eta belaunaldi berriei duten jakintza transmititzen jarraitu dezaten. ■



ELHUYAR ZIENTZIA-SERIE BERRIAK



Kalean daude jada Elhuyar Fundazioak irakurtzeko eta esperimentatzeko argitaratu dituen 3 zientzia-liburu bilduma berriak:



ARMIX max-mix
Zz
Gazteentzako zientzia-esperimentu ikusgarri eta egingarriak.
8-10 urte
10€



SIMON BLOOM, GRABITATEAREN ZAINDARIA
Zs
Michael Reisman
Gazteei zuzendutako zientzia-narrazioa irakurketa-liburua.
12-16 urte
12€



IA DENAREN HISTORIA LABUR BAT
Zi
Bill Bryson
Helduentzako zientzia-dibulgazio obra unibertsal eta ulerterraza.
16 urtetik gora
15€

Informazioa eta erosketak: www.elhuyar.org/edizioak eskaerak@elhuyar.com 943 36 30 40

ELHUYARREKIN, MURGILDU ZAITEZ ZIENTZIAREN MUNDUAN IKUSPEGI BERRI BATETIK.

Zelai haundi, 3. Osinalde Industrialdea. 20170 Usurbil (Gipuzkoa) · Tel.: 943 36 30 40 · Faxa: 943 36 31 44

Marivi Bilbao

«Bihotza buruan dago»

Ordubetea hamahiru zigarro erretzen dituenari nola faltako zaio sua?

SUSTRAI COLINA

Argazkiak: Dani Blanco

Txikitan bihurria izango zinen zu...

Bihurria ez dakit, baina ikasle txarra bai. Mojetan ikasten nuen eta zer zen hura! Ni gerraren alaba naiz, eta izuari bost axola zaio parean neska koxkor bat edo aitona zahar bat eduki. Gogoan dut, 13-14 urte nituela ikaskide baten aita fusilatu zutela kartzelan, Francoren kontrakoa zelakoan. Gure lagunak, minaren minez, malkorik ere ezin zuen isuri. Zuk uste duzu mojek haren aldeko meza egin zutela? Ezta aitagure bat errezatu ere! “Ez dira gure kontuak” erantzuten ziguten. Francori desegokia iruditzen zitzaion oro zen bekatu. Zentzu horretan, Eliza da sekula eza-gutu dudak erakunde lotsagarriena. Pentsa, azkenaldian irten eta irten ari diren pederastia kasuen aurrean ere isil-isilik daude.

Orduan, zu izango zinen isil-isilik egongo zena.

Sarri-sarri esaten da orduan ezin zela euskaraz mintzatu, baina garai haietan ezin zen ez euskaraz, ez gaztelaniaz, ez txineraz hitz egin. Zure eiteko haurtxo batekin ahopeka ariko zinen, baina etxean entzundakoak kalean isiltzeko agindua genekarren gurasoengandik. Izugarria zen. Horri gehitzen badiozu munduko gaixotasun guztiak zeudela karrikan. Tuberkulosia, sarna, zorriak, gosea... Ez zait sekula ahaztuko, behin kalean nindoala, ezin zuzenduz zebilen gizonezko bat odola oka egiten ikusi nuenekoa.

Arrasto batzuk betiko geratzen dira?

Geratuko ez dira ba! Bistan da gero aurrera egiten duzula, bizitza honetan aurrera egiten ez duenak jai daukalako. Nola ez zaitu markatuko zure eskolakide baten aita fusilatu dutela jakiteak? Denok dakigu auzoari pasatzen zaiona norberari gerta dakiokeela, eta gisakoak nahi beste tirokatu zituzten. Alferrik esango didate niri milioi bat hildako egon zirela. Askoz gehiago izan ziren. Zergatik asaldatu

dira bestela Garzonek bakoitzak bere hildakoak topatzeko bidea jarri nahi izan duen? Baina gizarte joerak ezin dira hain denbora gutxian aldatu, eta Espainian kakalarri kronikoa bezain ugaria den fatxa mugimendu bat dago. Ni orduan umetxoa nintzen, greziarra edo latina ez ikasteagatik mojen hileroko antzezpentxoak asmatu eta prestatzeko boluntario agertzen nintzena, baina orduko egia bakarra da Francok afalostero-afalostero heriotza kondenak sinatzen zituela.

Hori hala, ez zen arriskatua interpretaziora dedikatzea?

Interpretatzen zenuenaren arabera. Hastapenetan, Bilbon Valle-Inclánen obra bat estreinatzeaz ginelako polizia etortzen zitzaigun entseguetara. Zorionez, baboen hurrengoak bidaltzen zizkiguten, eta irainak baizik ez zizkiguten galarazten, mamia harrapatzen ez zuten zer aldatu ez zegoela iruditzen baitzitzairen. Baina gerora, obra estreinatzea lortu genuen arren, dezenteko arazoak izan genituen polizia eta gobernadoreekin. Badakizu, beti muga, beti alantzearen gainean, erori ez erori. Ez zen hori alta nire arazo bakarra.

Nortasun agiria

1930eko urtarrilaren 22an sortu zen Bilbon. Ospe berantiarra *Aquí no hay quien viva* eta *La que se avecina* telesailak eman badiote ere, ibilbide luzea du antzerki, zinema zein telebistan. Horren erakusgarri, hogeit hamar pelikula baino gehiagotan hartu du parte, eta beste hainbeste film laburretan ikus daiteke bere aurpegia, tartean Oscarretarako izendatua izan zen Borja Cobeagaren *Éramos pocos* lanean. Bere lana aintzat hartzeko, behin eta berriz saritua izan da.





Gure aitak ez zuen nik antzerkirik egiterik nahi. Etxetik ospa egin behar izan nuen eta seiscientos zahar batean bizitzen jarri. Ez zegoen modurik. Txikitan, gure aitak antzerkera, zinemara edo operara eramaten gintuen, baina nire ordua iritsi zenean “egin dezatela besteek, ez nire alabak” esaten zuen. Gerora berradiskidetu ginen, izugarri maitatu izan dut, baina harrigarria da jaiotzen garen unetik nola topatzen garen matxismoarekin. Orain gauza horiek askoz hobeto daudela esango dizute, baina kauen zotz, urtea hasi denetik 50 emakume akabatu dituzte. Aluzinantea.

Zuen hastapenak ere nahiko aluzinanteak izan ziren.

Edonon antzezteko prest geunden. Pentsa, leku batzuetan, hasi aurreko beldur-pixa egiteko arbola bat ezin bilatuz ibiltzen ginen! Hori aski ez eta mundu honetan pobre usaina duen oro gutxietsi egiten da beti. Halako batean lortu genuen Akelarre izeneko tropa bat plantan ezartzea, baina zirenak eta ez zirenak egin arren, ez zitzaigun sekula sosa iristen. Hartzen duzu muturreko bat, bi, hiru, lau, baina azkenerako pentsatzen duzu hobe dela errepresentante bat kontratatu eta zuretzako lan bila jartzea. Ez duzu imajinatzen zenbat puntako aktorek utzi duten lana jateko beste ematen ez zirelako. Orain zertxobait hobetu da egoera, baina hiriburuetatik kanpo, apenas dagoen konpainiarik, apenas dagoen perspektiba baikorrik. Baionan sortzen bazara Parisera joan behar duzu, Bilbon jaiotzen bazara Madrilerara, baina gaztea zarenean hori ez dakizu, eta nahi duzun

"Ez pentsa jendea ederra delako soilik aukeratzen dutenik. Zinemaren industria negozio interesatuegia da edertasun hutsean oinarritzeko"

bakarra teatroa egitea da, sortzea, sentitzea, bizitzea, eta hori ere ez dizute uzten.

Izan duzu desertua zeharkatzen ari zinen sensazioarik?

Burutik beti pasa izan zaidan gauza bakarra da nola edo hala aurrera egin behar nuela. Ezin duzu pentsatu ez daukazula zorterik, oso gaizki zaudela, porrot egin duzula, ahaleginak ez duela ezertarako balio izan... Karpetak zaharrak ixten eta berriak irekitzen ibili behar duzu etengabe, beti joan behar zara hurrengo pausoaren bila. Esaterako, orain mundu guztiak telebista daukanez etxean, telebistari esker famatu bihurtu zaitzake, baina

ez duzu sekula ahaztu behar jende horrentzat egun batetik bestera desagertu zaitezkeela. Ez dira gutxi ahaztu ditugun aktore zoragarriak, egun jan ahal izateko medizina saltzen ari direnak. Negozio guztietan gertatzen dira halakoak, baina guri aurpegia ikusi egiten digute, eta

hori oso arriskutsua da. Gurean baieztatu eta ezeztatu ondorio guztiekin ematen dira. Egia da zuzendari batek zurekin lan egiteko benetako interesa baldin badauka ahaleginak eta bi egingo dituela bere agindupera ekartzeko, baina ezetz esaten duzun bakoitzean beste bati zabaltzen diozu atea, eta beste horrek lana ondo egin eta zu baino gustagarragoa izatea lortzen badu zurekin egin du. Oihanean oihaneke legeak agintzen du.

Non dago artea oihan horretan?

Aurrera egiteko sekulako bokazioa behar duzu. Afiziotik heltzen zara ofiziora, eta ofi-



ziotik aurrerako pausoak konbentzimenduari esker ematen dituzu. Konbentzimendu horrek ematen dizu gauzak ondo egiteko maitasuna. Izan ere, bizitzaren arlo guztietan bezala, esku artean duzuna ondo ateratzeko gustuz eta maitasunez ekin behar duzu. Maitemintzearen gisako zerbait da. Egun batez,

karrikan zabiltzala neska bat ikusi eta gustatu egiten zaizu. Orduan, zure buruari “baina nola demontre gustatzen zait oraindik ez badut berarekin hitz egin” galdetuko diozu, baina ez dauka bueltarik. Agian, hamar minutu iraungo du, akaso hamabost egun, eta beharbada bizitza oso bat, baina tarte horretan sentituko duzun indarra izango da zure motorra. Gero bizitzaren eskarmentuak asko laguntzen du bai oholntza gainean eta baita oholntzatik kanpo ere. Ezin zara beti kexaka eta erretxinduta ibili hau edo hura pasa zaizulako. Mundu hau adorea dutenena da, ez bakar-bakarrik negarrez alfer-galtzen direnena. Horregatik, jende askok uste du bizitza sentimendu kontua dela, dena bihotzean dagoela, baina ez, bihotza buruan dago.

Bihotza buruan badago, zergatik oinarritzen da aktore askoren arrakasta euren edertasunean?

Hori beti izan da hala, eta egiari zor, jogurin batzuk bista alegartzeko modukoak dira, kar, kar, kar! Baina ez pentsa jendea ederra delako soilik aukeratzen dutenik. Hor badaude jokoa ematen dutelako da. Telebista eta zinemaren industria negozio interesatuegia da edertasun hutsean oinarritzeko. Esaterako, beste egunean, auskalo nongo tertulian, Belen Esteban larrutzen ari ziren. “Ez zarete konturatzen

Nabarmentzen ausartu
Hor kanpoan beste Julio Verne bat egon daiteke.
Zu al zara?

Antolatzaileak:
ELHUYAR fundazioa
CAF

Laguntzaileak:
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
MINISTERIO DE CULTURA

2.000 €
- Dibulgazio-artikulu originalak:
- Dibulgazio-artikulu orokorrak
- Egilearen doktore-tesian oinarritutako dibulgazio-artikuluak
- Zientzia-kazetaritzaren arloko lanak

5.000 €
- Gazteei zuzendutako zientzia-narrazioak

CAF ELHUYAR
sariak 2010

Parte hartu.
Informazio gehiago eta oinarriak:
<http://caf-elhuyar-sariak.elhuyar.org>

AZKEN HITZA

Etorkizuna

"Nik zinema egiten segi nahi nuke. Horrek mugitzen dizkit barrenak. Gertatzen dena da amona xahar bat behar dutenean, lodixka eta arratsaldetan puntua egiten ibiltzen dena nahi izaten dutela, eta ni ez nautela sekula horretan irudikatzen. Nik saiatzen uzteko erregutzen diet, gustura eta ondo egingo dudala, baina alferrik. Antzerkia egiteko, ordea, zahartu naiz. Goizean esnatzen zaren momentutik badakizu iluntzean teloa igoko dutela, eta horrek asko baldintzatzen dizu eguna. Antzerkia oso polita da, asko ikasten duzu, asko irakasten dizu, baina nire adinean ez nago geratzen zaizkidan egunak baldintzatzeko prest".



zoragarri askori entzun izan diet pertsonaiaren barruan sartu behar izaten dutela. Hori ezinezkoa da niretzat. Nik pertsonaia hartu eta nigan sartu behar izaten dut. Hori hala, nola ez dira nahasiko pertsonaia eta aktorea? Beste adibide bat jarriko dizut. Antzerki obra batekin bueltaka genbiltzala aktore bati aita hil zitzaion, baina lana lana denez, gauean bertan antzezpenera etorri behar izan zuen. Ez didazu sinetsiko baina huraxe izan zen ondoen antzeztu zuen eguna. Horrek zer esan nahi duen? Pertsonaia bat antzezten duzulako ez

justu hori egiteko kontratatzen dutela, eta beste guztiak piper bat ardura diola" pentsatzen nuen nire baitan. Noiz ohartuko gara hau guztia dirua egiteko makina bat baizik ez dela eta pertsona horren antzezpenera ahalbidetatzen dituela etekinak. Hori etikoa den ala ez besterik da, baina emakume horrek tuntu-netik ez du deus, paper bat interpretatzen ari da eta kito.

Badirudi ospetsuarena dela denek interpretatu nahi duten papera.

Ospeak ez du ezertarako balio, molestia besterik ez dakar. Prentsa, propaganda, han eta hemengo galak, konpromisoak, ez duzu imajinatzen zenbat zita nazkagarri pilatzen zaizkigun. Baina gure bezeroak dira, eta eurak gabe ezer ez garela badakigunez, jaten ematen diegu. Sariak ere zer dira ba? Saritzen zaituzte, argazkia atera, txalo jo, baina zuk pertsona berbera izaten jarraitzen duzu zure dohain eta miseriekin. Gaitzerdi begia gozatzeko moduko eskultura bat tokatzen denean! Horrekin esan nahi dudana da punta-puntan dabilzan aktoreei fama ez zaiela interesatzen, euren lana ongi egitea baizik. Gero egia da baboak denetan daudela, baina egon lasai, industriaren hariak mugitzen diharduen jendea ez da tontoa, eta gure munduan, ezertarako balio ez duena oso arin bidaltzen da haizea hartzera. Baita munduko ipurdi ederrena edukita ere!

Zergatik nahasten da usu aktorea pertsonaia-rekin?

Funtsean pertsona bera delako. Edozein pertsonaia egiten duzula ere zu zara. Aktore

diozula pertsona izateari uzten. Derrigor izan behar zara pertsona pertsonaia antzeztu ahal izateko. Besterik da telebistaren indarrak jendea nahas-bidera eramatea. Baina hori horrela da eta ez zaio buelta gehiago eman behar. Une honetan jendea irriaraztea tokatzen bazaizu ahaleginak eta bi egin behar dituzu denak barrez lehertu daitezen, eta negar eginaraztea tokatzen bada denak malkotan blaitu arte ezin duzu atsedenik hartu. Zuk zure lana ondo egiten baduzu zurerara erakarriko duzu jendea. Hortxe daude gure lanaren balorea eta meritua.

Irakurri dizut 20 urterekin naturak emandako aurpegia izaten duela pertsonak, baina zahartu ahala, geu joaten garela gure aurpegia eraikitzen.

Bere aurpegia eraikitzen ez duena baboa galanta! Ezin zara negarrez hasi zimur bat atera zaizulako, edo zatartzen ari zarelako. Ezin zaizkizu zainak izoztu kritika txar bat idatzi dizutelako, edo halakok iraindu zaituelako. Garbi izan behar duzu lagun askok asko maite zaituztela baina beste askok ez zaituztela bistan ikusi nahi. Aitzakiek ez dute ezertarako balio, eta aurrera jotzea da beti gertatzen zaizun irtenbide duin bakarra. Gero egia da, zahartzera dena erlatibizatzen ikasten duzula, ez zarela gaztetan bezain pasionala, eta Pernandoren egia badirudi ere, aurpegia zenbat eta eraikiagoa izan orduan eta gutxiago falta zaizula eraikitzeke. Hori bai, ez pentsa zaharrak gazteak baino argiagoak garenik, ezta hurrik ere, baina gauza gehiago bizi izan ditugu, eta bizitzak gainditu ezin duzuna erakusten erakusten dizu. ■



Ikasleak –tartean lagun izan dituzten bi bretoi– arraunean hastear, Albaolako kidearen agindua entzuten.

Ikasgelatik trainerura

Ikasmahaietako aulkietatik altxa, eta asteazkenero, Albaola ontziolara joaten dira Pasaia-Lezo Lizeoko ikasleak. Han, besteak beste, ontzi bat nola gobernatu ikasten dute. Gazteak motibatzen proiektu berezia du abian jarria aurtengo Kilometroak jaiaren antolatzaileak: marinelaren ofizioa irakastea.

ARAITZ MUGURUZA

Argazkia: Dani Blanco

BESTELAKO HEZKUNTZA PROIEKTUA abiatu zuten duela bi urte Lizeoan. Hiru hilabetez, eskola magistrala Albaola ontzian ematen dute. Bertan, itsas bizimoduarekin harremana duten zereginak lantzen dituzte: arraunean aritzeko lokarriak edota korapiloak egiten ikasten dute, esaterako. Hala, ikasturtea gain-

ditzeko beharrezko ikasgaiak barneratzeaz gain, Pasaia historia eta arrantza mundua ezagutzea da helburua.

Albaola eta Lizeoa urte askoan aritu dira elkarrekin lanean, ontziolako kide eta ikastolako irakasle Ane Miren Mirallesek baieztatu digunez. Urtetako bultzadaren ostean, ekime-

na aurrera ateratzea lortu zuten eta duela bi urte egin zuten lehen proba –Gipuzkoa Donostia Kutxa dute laguntzaile–. Pozik geratu ziren orduko emaitzarekin, eta errepikatzea erabaki zuten.

Azken ikasturtean, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 23 gaztek hartu dute parte egitasmoan, 12-16 urte artekoak. Guztiak dira dibertsifikazio kurrikularreko ikasleak. Alegia, eskolan arreta mantentzeko eta ikasgaiak gainditzeko arazoak dituzten ikasleak. Gehienetan, arazoen oinarria motibazio falta dela uste du Mirallosek. Eta hain zuzen, motibazioa areagotzeko xedez sortu zen proiektua. Lortu dute hainbat kasutan, erabateko aldaketa eman duen ikaslerik bada, eta horrek asko pozten du irakaslea: “Iruditzen zaigu proiektu interesgarria dela beraien motibazioa pizteko, ikusteko lanaren bidez gauza asko lor daitezkeela”. Are gehiago, ikasketa arazoak dituztenentzat bakarrik izan beharrean, ekimena ikasle guztientzat onuragarria dela eta denek parte hartu beharko luketela uste du.

DBHko 23 gaztek hartu dute parte egitasmoan. Guztiak dira dibertsifikazio kurrikularreko ikasleak, alegia ikasgaiak gainditzeko arazoak dituztenak, eta motibazioa areagotzea da proiektuaren xedea

Garai bateko arrantzaleen gisa

Ontziolan, lanaren bidez saiatzen dira irakasgaiak helarazten, baita bizitzan beharrezkoak diren baloreak ere. Pasa den ikasturtean, adibidez, marinela izatea zer den ikasi dute. Garai bateko arrantzaleen modura, arraunean, patroari obeditzen, maniobrak egiten, bela erabiltzen... ikasi dute. Baita ere marinela zein jarrera behar duen ontzian. Elkarlanean aritzea garrantzitsua dela barnerratu ahal izan dute, denen adostasunik gabe ontziak ez duelako aurrera egingo. Azken finean, proiektuaren bidez hainbat balore positiboren jabe egin dira ikasleak.

Gainera, Mirallosek azaldu digunez, proiektua ikasle bakoitzaren beharretara moldatzen saiatzen dira. Garaiz iristeko arazoak dituen ikasleari, esaterako, baldintza jarri zioten aste osoan bere orduan iritsi zedila. Hori bete ezean, ontziolara joateko baimena kenduko zioten. “Konpromisoa erakutsi behar dutela adierazi nahi diegu, ez dela nahikoa tailerrera azaltzea”.

MARITXU JATETXEA

☎ 943 399 062 · Faxe: 943 399224
Euskadi Etorbidea, 13 / Trintxerpe
Pasai San Pedro (Gipuzkoa)
www.restaurantemaritxu.com

- Era guztietako itsaskiak, etxeko haztegikoak
- Arraina plantxan eta labean
- Gomendatuak: itsaski parrillada, zapoa saltsan eta txerrikumea

/ Eguneko menua / Karta / Taldeentzako menu bereziak





Kilometroak 2010
Urriak 8



Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura eta Euskara Departamentua



KAIALDE
J A T E T X E A

Sukaldaritza tradizionala
Egunero menu desberdinak
MENUA · DASTATZEKO MENUA

Polentzarrene, 6 · Lezo (Gipuzkoa) ☎ 943 512 003
contacto@lezokokaialde.com · www.lezokokaialde.com



Restaurante ETXEBERRI
Jatetxea

Euskal sukaldaritza tradizionala
Naturan bertan kokatua
Legatz betea eta bildots erreka, etxeko berezitasunak

Lezo-Gaintxurizketa errepidea - 20100 Lezo (Gipuzkoa)
☎ 943 529 889 - www.restaurante-etxeberrri.com



atrezzo
marko dendak

www.atrezzoak.com

irun · errenteria · donostia

KILOMETROAK
10
[ELKARRREK IN
ZABALDU!



A FUEGO NEGRO

-alde zaharra- DONOSTIA

JAN EBAN ENTZUN IRUSTI ETA IRASTI

Bostekoa emateko hamaika arrazoi

Hona Bostekoa! da aurtengo Kilometroak jaietako leloa. Oro har, bostekoa laguntza eskatzeko edota elkartasuna adierazteko erabiltzen den keinua izaten da, baina *Boxtonek* –Kilometroakeko aurtengo logotipoak– aurkitu dizkio bestelako esanahiak. Adibidez, bost zenbakia hamar aldiz biderkatu, eta duela mende erdi sortu ziren lehenengo ikastolei egiten die erreferentzia. Agustin Migeltorena, Pasaia-Lezo Lizeoko zuzendariak, Don Inazio Esnal nabarmendu du, mugimendu euskaltzale hura sortzen lagundu zuena. Hori eskertzeko, omenaldia egingo diote urriaren 3an: “Omenduko dugu belaunaldi hura, baina bereziki Don Inaziori egingo diogu aipamena”. Garai haietan bere ekimena funtsezkoa izan zela azpimarratu du Migeltorenak.

Bost zenbakiak gehiagorako ere ematen du. Ikastolako zuzendariak bost arrazoi eman dizkio bisitariari Kilometroakera joateko, era berean bost arrazoi dituztelako berau antolatzeke: seme-alaben hezkuntza, euskara, euskal kultura, hezkuntza propioaren aldeko aldarria, Euskal Herriak behar duen eskola sarea, eta Lezon eraiki nahi duten ikastola berria.

Boxtonen bost zenbakiak, halaber, badu geografiatik ere. Lau barrutik osatzen dute

Lana hasi eta bukatzearen konpromisoa ongi bete dutela uste du Albalako kideak eta 2008-2009 ikasturtea ekarri du gogora. Orduan, larruzko kanoa bat egin zuten ikasleek. Beharrezko materiala ez zenez garaiz iritsi, ekainean aritu behar izan zuten kanoa amaitzen, eskola orduetaz kanpo. Ilusioz gogoratu du: “Ikasleak udan etorri ziren, proiektua amaitu ahal izateko”. Antza denez, hondartzako giroak ez zituen gazteak aldendu, eta zintzo bete zuten beren lana. “Arratsaldeko seitan sekulako eguraldia izan arren, batzuk ontziolan aritzen ziren lan eta lan”. Azkenean, uztailan uretaratu zuten kanoa, eta irakasleei eta laguntzaileei ez zaie ikasleen jarrera ona ahaztu.

Oro har, ikasleek gustukoago dute ontziolako lana, gelako ariketak baino. Aurten gainera, egindako lanagatik ordaina jaso dute. Proiektuan parte hartu duten ikasleetako lauk Kanadara bidaiatu ahal izan dute. Antzeko ekimenak landu dituzten ikastetxeen arteko topaketa egin da, Kanadako Midland-en, eta hara joan dira Garazi Cubillo, Markel Lezertua, Aitor Zaramalilea eta Aitor Edroso. “Oso aukera



Pasaia: Donibanek, Trintxerpek, Antxok eta San Pedrok, eta horiei Lezo gehitu behar zaie. Barruti bakoitzean dauden ikastolak eta Lezo-ko ikastola elkartzaren ondorio da Pasaia-Lezo Lizeoa. Barruti bakoitzak bere presentzia du logotipoan, zehazki irudiaren gandarreko koloreetan: arrosarekin Pasai Donibane adierazi nahi da, morearekin San Pedro, urdinarekin Trintxerpe, gorriarekin Pasai Antxo –Sanferminak gogoratuz–, eta berdearekin Lizeoa”.

Kilometroak festarako dena prest dago jada: bost gune izango ditu, sei kilometrotan banatuta. Oarsoaldeko paraje desberdinak hartuko ditu ibilbideak: landa-eremua eta portu aldea. Abestiaren hitzak Jon Garmendia Txuria bertsolariak egin ditu, eta musika Esne Beltza taldeak.

ona izan da eta gainera hemen eskolan baino hobeto pasa dugul”, diote. Irakaslea ziur da horrelako bidaia erakargarriak direla gazteen-tzako, baina badaki baita ere ez dela arrazoi bakarra izan ikasleek euren lanak amaitzeko. Proiektua bera da motibagarri. Saria ikasle guztiek merezi zutela dio, eta aukeraketa zaila izan zela. Baina DBHko lehenengo eta bigarren mailakoek, adibidez, ezinezko zuten topaketetara joatea, adina dela-eta. Gainontzekoen artean, hautaketa hiruhilekoan zehar egin duten lanaren eta erakutsi duten jarreraren araberakoa izan zen. Noski, ilusio handiz hartu zuten berria hautatuek.

Aurretik aipatu dugu: ikasturteko azken hiruhilekoan burutzen dute proiektua. Orduan jaisten dute Pasaia-Lezo Lizeotik Albaola ontziolara doan aldapa; baina izatez, proiektuari urte osoa eskaintzen diote. Miralasek azaldu digunez, bi zati ditu programak, teorikoa eta praktikoa. Udazkenean eta neguan lantzen dute teorikoa, eta udaberrian ontziolara joateko garaia iristen da, ikasitakoa praktikara eramateko. “Lan praktikoen bitartez, ikasleak motibatzen ditugu, gainontzeko

Jatetxea - Restaurante
NICOLASA



*Txangurroa labean eta arraia plantxan
Eguneko menua eta bereziak*

☎ 943 515 469

Donibane, 59 · Pasai Donibane (Gipuzkoa)



**Bazkari on bat
inoiz ahazten ez den gauza da**

☎ 943 525 441

Gaintxurizketa auzoa
Lezo (Gipuzkoa)



Donibane, 49 · 20110 Pasai Donibane
ITSAS LEHORREKO ZERBITZUAK
ESKATU BALORAZIOA ☎ 943 528 041 / 659 394 498

Itsasontzientzako zainketa
Mota guztietako motorrentzako tailerra-elekttrizitatea-margoketa
Ontzien lehen eta bigarren eskuko alokairua eta salmenta



**EKAIN
TALDEA,
S.L.**



www.ekain-taldea.com

**ENERGIA BERRIZTAGARRIEN
INSTALAKUNTZA,
IKERKETA ETA
PROIEKTUAK**



Tfnok. 943 34 05 09 - 656 70 22 60
Faxa: 943 34 05 09
e-mail: ekain@ekain-taldea.com

Amasatarren 6, ORERETA-ERRETERIA (Gipuzkoa)

ikasgaiak ematen ditugun bitartean, dela gizartea, hizkuntza...”.

Midland, ikasle ugariren topaleku

Beste hainbat herrialdetan ere aurki ditzakegu horrelako egitasmoak, horietako batzuetan aspalditik gainera. Aipatu moduan, topaketa egiten da egitasmoan parte hartzen duten nazioarteko ikasleak biltzeko. Pasaia-Lezo Lizeoko gazteak uda honetan izan dira lehen aldiz, Midland hirian. Astebete izan dira, aurretik Maine estatuan (AEB) bi astez egon ostean.

Euskal Herriko lau ikasleak nazioarteko tripulazioan hartu dute parte —ekimenean hasi berriak direnei ematen zaie aukera—, hamahiru herrialdetako gazteekin batera. Gehienak europarrak ziren, baina Indonesiatik edo AEBetatik gerturatutakoak ere baziren. Zehazki, euskaldunek Errusiako eta Britainiako lagunekin bidaia zuten ontzi berean eta harreman handia egin zuten elkarrekin bizitako egun haietan. Gainera Albao-lan landutakoa ontziolatik kanpoko esperientzia baliagarri izan zitzaien. ■

Juantxo

TABERNA



Ogitarteko eta pintxo
bero eta hotzetan espezializatua

Enbeltran kalea, 6 · 20003 DONOSTIA · 943 427 405

TXINGURA

TAILERRA, S.L.



ERAIKUNTZA METALIKOA ETA HERRERITZA

Egiburuberri industrialdea, 17 D
Erreteria (Gipuzkoa)

☎ 943 331 836 · Faxe: 943 552 388
sebas@txingura.com · www.txingura.com

KILOMETROAK JAIAREKIN



MENABI

Festa barruan sartzen gara

 **MENABI** TXINGURRI PASEALEKUA, 26 · TEL. 943 40 42 43 · DONOSTIA



ERBI BUS

MICROBUS EGOKITUAK 19 plazatik 43 plazetara
Txangoak, bodak, bidaiak, sagardotegiak...

Egiburuberri poligonoa 13, OV lokala
Orereta - Erreteria

Tel: 943 008 579 - 656 704 021
www.erbibus.com / erbi@euskalnet.net

ZINEMALDIA ARGIAN

GUNE BEREZIA argia.com-en

- Programa
- Trailerrak
- Kritikak
- Gomendioak
- Zinemaldia iruditan
- Euskal pelikulen webguneak
- Egunez eguneko jarraipena Twitter bidez

www.argia.com/zinemaldia-2010

ETA ALDIZKARIAN

Erreportaje, elkarrizketa eta kritikak
datorren astetik aurrera.



Ardura

DANI BLANCO



Ana Urkiza



Padroin



Sarasola

Igandez ari naiz idazten. Egun kuriosoa, benetan, gaurkoa. Goizean, alaba txikiena zortzietarako etorri zaigu ohera; eskuetan gosarirako taza more handia zekarrelarik, “aurpegi irribarretsua” deitzen dioguna. Tazak, begiak, sudurra eta barrirudia erakusten duen ahoa ditu. Erosi genuenean, taza huraxe gustatzen zitzaiola esan zigun, berak ere aurpegian beti barrirudia izaten duelako. Lezio bitxia jaso genuen orduan, etxeko txikienarengandik.

Ohera tazarekin etorri eta “tori ama, zuretzako, nik baino gehiago behar duzu-eta” esanez luzatu dit. Oporretan taza berria erosi diogulako oparitu dit berea, baina berari baino niri zerbitzu hobea egingo didala esanez.

Gero, Kontxako estropadak ikustera joateko goiz ibili behar dugula esan diogunean, goizeko hamaiketan nesken txanda dela gogorazi digu. Alaba nagusia ere, ordurako, ohera hurbildua zitzaigun. Eta zera galdetu dio aitari: emakumezkoen txandako onenak Donostiarrak-eko gizonezkoek baino bizkorrago egingo ote duen... Ezetz erantzun behar izan diogu... eta txikienak, ohean etzanda zetzan aitaren gainean hankak jarri, beso biekira tira egin eta ipurdia aitaren bizkarrera igotzen saiatu da, behin eta berriz, berak lortuko duela esanez, bai aitaren gainera igotzea, eta bai gizonezkoak adina izatea.

Igandero lez, prentsa irakurtzen aritu gara ondotik, hondartzan lehenengo, eta bazkal ostean gero. Lau urteko seme autista duen guraso baten eskutitza irakurri dut batean, zein laguntza gutxi eta zein bakarrik sentitzen diren salatuaz. Eta, batean, umetokian kantzerra izan duen ezagun baten

hitzez gogoratu naiz. Kantzerra erotik erauztea lortu diotela esaten zidan, erradioterapiaz garbiketa oro egitea (kimioaren premiarik gabe), argalen argal egon dela azkeneko hilabeteetan eta erraz esaten zaiola aldamenekoari, “inoiz baino gogorrago izan behar duzu” edo “bukatu da, garbi-garbi

eginda utzi zaituztenez, orain, bizitzaz gozatzera..!”. Gaitza besteen teiltuan dagoenean, gozo asko ateratzen omen zaizkigu hitz ederrak, hitz handiak, eta zein zaila den, egoera horretan bizitza aurrera eramatea... “Bakoitza bere munduan bizi gara” esaten zidan, “medikuez aparte oso kontsolamendu gutxi aurkitu dut inguruan...”.

Ardura. Ardura gailendu zait. Ardura ez ote garen itsuz betetako gizarte bat eraikitzen ari. Itsutasuna sinesten eta indartzen...

Arrastian, mendi ingurura ibilaldira bat egitera joan garenean, txikien biek patinekin joan behar zutela-eta, bide-gorria dagoen leku lasai batera joan gara. Umeak aurretik abiatu zaizkigu. Handik denbora batera, hiru umeak lurlean ikusi ditugu, lanen bat egiten edo. Txikiena erori egin dela jakin dugu hurbiltzean, eroriko handi samarra. Belauna urratu duela eta odoletan hasi zaiola. Gu heldu garenerako, inguruko iturri bateko urarekin zauria garbituta eta lurretik jasotako orbel garbi batzuekin, buruko ileko goma bati esker belaunean tiritatzen mendikoa prestatuta zeukaten...

Eta ardura, baliabiderik ez dutenekiko izan behar dela ulertu dut. Nahiz eta baliabideak dituzten batzuen gertaerak ere oso gogorrak izan.

Baliabideak dituztenek irribarre egiten dakite, erronkak jartzen eta hauei aurre egiten, eta irtenbideak aurkitzen.

Oherakoan, “aurpegi irribarretsua” estreinatu dut eta... ardura emetu zait. ■



Gaitza besteen teiltuan dagoenean,
gozo asko ateratzen omen zaizkigu

hitz ederrak, hitz handiak,

eta zein zaila den, egoera

horretan bizitza aurrera

eramatea...



GORA PRO NOBIS

Asisko Urmeneta



Joxemari Carrere

IPUIN KONTALARIA

Kontalaritza zer ote?

Ipuin kontalaritzan dugun noizbehinkako eztabaida da, ea gurea antzerkia ote den edo beste zerbait. Izan ere, definizioen jendarte honetan ezinbestekoa da norbere jardunaren nondik norakoak ahalik eta zehatzen azaltzea. Literatur generoak, musika estiloak, antzerki ikuspegiak, dena sailkatzen da eta definitu. Behar al du, baina, sormenak halako sailkapen sukarrik? Sortzailerak behar al du? Nago gehiago dela merkatuaren arrazoia, hemen ere, gailentzen dena. Eta merkatuak, kulturen ere, antolamendua behar du (nahiz eta azken boladan antolamendu hori sasi-koa izan). Ipuin kontalaritza antzerkitik bereizteko kezka, kultur merkatu horretan izen propioaren beharrak bultzatu du hein handi batean. Kontalaritzaren nondik norakoak zertan diren azaldu beharra. Sormen ekintza berezkoa dela aldarrikatu. Hain ezberdinak ote dira ordea, antzerkia eta kontalaritza?

Badira liburuak ikasbideak direnak, etengabe beraingana ekartzen zaituztenak zalantzak argitzen lagun. Dario Fo antzerkigile italiarraren *Manuale Minimo dell'attore* idatzia antzerkizalearentzat ezinbesteko liburua da. Liburuak antzerkiaren oraingo eta aspaldiko kontuak haizatzen ditu. Horien artean,



DANI BLANCO



Ipuin kontalaritza zertan
den, nondik nora jotzen
duen jakiteko modurik
errazena kontalariak
ikustea da,
ezagutzea



Kontraerreforma garaiko testu bat aipatzen du, Carlo Borromeo Kardinalaren laguntzailea zen Ottollik komikoei buruz esandakoa: “ (...) komikoek ez dituzte errepresentazio guztietan komedia berriaren hitz berberak esaten, aldioro asmatzen dute, muina ikasiz, atal txikietan eta une zehatzetan, ondoren modu inprobisatuan erretratatu, modu librean, naturalean eta graziosoki trebatuz. Publikoan lortzen duten efektua sekulako parte-hartzea da, modu natural horrek grinak, emozioak, eragiten ditu, arrisku handikoak, zentzuen eta lizunkeriaren moralik gabeko festaren goresmena baitira, jokabide oneko kontrakoak, jendartearen arau santuen oldartzeak deiak, behe jendearen artean nahasmen handiak sortzen dituztenak”.

Tira, ez dut uste tipo honen iritzi komediantek eta kontalariak ama ezberdineko semeak izango zirenik. Hala ere, ipuin kontalaritza zertan den, nondik nora jotzen duen jakiteko modurik errazena kontalariak ikustea da, ezagutzea. Euskal kontalaritzaren erakusketa ederra izango da Bermeon Euskal Kontalarien V. Festa aitzakia. Irailaren 25ean eta 26an. Bertan ikus ahal izango dugu delako Ottolli hark arrazoia ote zuen. ■

TXANDAN

Igor Estankona



Urri lehenengoak 11. Igorreko kultur etxean bildu ginen utopikoak, burujabetzari buruz hitz egiteko, geure errepublika nondik eraiki genezakeen hausnartzeko.

Adierazi EHk deitu eta debekatutako manifestazioaren ostean deitutako manifestazioa ere debekatu egin zuten arren, halako baikortasun neurridun batek hartu gintuen arratiarrak, geure buruenganako konfiantza berreskuratu izan bagenu bezala, aspaldiko partez.

Gure Baskoniaren abortua hil zutenek ez gaituzte desagerrarazi.

Hil dituzten kaleei izena ematen dieten izenak hil

Irailak 11

dituzte, gure hagin zatiekin batera erortzen diren ahoak hil dituzte, odolarekin, makilarekin eta minik ematen ez duten hitzekin, inoiz zutunik gaudela hil dute oinpean lurra. Desbideratu dute erreka. Hegazkinekin hil gintuzten eta oraindik ere txarrean maite gaituzte. Ilearen zutarretik hiltzen dute, eta guk etsi-etsian hil aurretik hil izan dugu, hilzorian hil izan dugu, biktimak bezala hil izan dugu.

Baina biktima izateari uzteko asmoz bildu ginen Igorren, 2010eko irailaren 11n, anai-arreba katalanen kantuak entzuten genituelarik haizeak ekarriak, independentziaren banderaren azpian. ■

Iñaki Barrena

EKOLOGISTAK MARTXAN-EKO KIDEA

Brasil 2010: hauteskundeak



Hauteskunde kanpaina hasi da Brasilen. Urriaren hasieran errepublikaren presidentea, hots, Lularen ordezkoa hautatuko dute. Duela zazpi urte —hiru aldiz presidentziarako hauteskundeak galdu ondoren—, sindikalista metalurgiko batek gobernu federalaren burua eskuratu zuen. Gauza asko aldatu dira zazpi urte hauetan Latinoamerikako nazio populatuenean, dudarik ez. Partido dos Trabalhadores (PT) izenekoak koalizio gobernuak zuzendu ditu, baina kritiko askoren ustez ez da gauza izan oposizioan errebindikatzen zituzten politikak martxan jartzeko. Iraganeko *Fora FMI*, *Nao ao pagamento da Dívida Externa*, *Reforma agrária*, ja leloak ez dira praktikan jarri, agian burgesiaren parte batekin paktuak egin dituztelako. Horregatik ere PTn eszizioak eta banaketak izan dituzte, nabarmenenak PSOL-ena eta Marina Silva, Ingurumen Ministroarena, orain Partidu Berdearekin presidentziarako aurkeztzen dena.

KONTRASTEAK. Brasilen aberats asko dago. Hego Amerikako lurraldearen erdia baino gehiago okupatzen duen estatu honetan industrializazio, produkzio eta kontsumo tasak altuak dira, eta moneta indartsua dute. Aldiz, Lularekin abian jarritako *Fome zero* programak ez du arrakasta handirik izan, eta oraindik ere



INIGO AZKONA

lau brasildarretik batek —ia 40 milioi pertsonak— gosea pasatzen du egunero. Pobreak izan dira petisten (PT) gobernuen politikan etengabeko erreferentzia eta administrazioaren aurrekontuak birbanaketa ekonomikorako erabiliak izan dira. Dena den txiroentzako programak eta poltsak mugatuak dira eta zerikusi gehiago izan dezakete karitatea-rekin justizia sozialarekin baino.




Txiroentzako programak eta
poltsak mugatuak dira eta
zerikusi gehiago izan dezakete
karitatearekin justizia
sozialarekin baino



ERLIJIOA. Mendebaldeko okupatzaile eta kolonizatzaileen arrastoak elizetan islatzen dira. Amazoniara zein Atlantikoko irla paradisiako urrunetara joanik, herrixketan tenplu kristauak dira erai-kin handien eta zentralenak. Egia bada ere Askapenaren Teologia, marxismoaren eta kristautasunaren ezkontza ideologikoa, Brasileko herri mugimenduetan presentea dela oso, nire gusturako erlijioak herriaren opioa jarraitzen du izaten. Gainera Eliza, Evaren jatorrizko pekatutik hona, patriarkatuaren oinarri sendoa da. Seguru asko hurrengo presidentea emakumea izango da (Dilma Rouseff; PTkoa) 2011ko urtariletik aurrera, eta horrek eragin positiboa izan dezake emakumeen berdintasun eta askapenerako. Baina azken bi legealdietan argi geratu denez, Estatuko Gobernuaren duenak ez ditu aldaketa sozialerako karta guztiak eskuetan. Gobernuaz gain, gizarteak behar du aldaketaren gidaria izan. ■

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Airean dabilta uhinak garraio, ETak iragarritakoa hobi. Eguna joan biharamuna etorri, eta hobi berean plisti-plasta azala muga. Ebidenteena eskura, atzaparrak lokatzetan haize errota, kaioak uxatzeko moduko mugimenduekin entretenitu nahi gaituzte beren ezinez ogibidea gurutze. ETak hartu du bere erabakia estrategia berriaren abiadan. Ezker abertzaleak behar du berea findu eta politika herrikoari ekin. Horretan datza bere ardura, urtetan nekez lortutakoari jarraipen sendoa emanez bildu lezake bere inguruan berarengandik aldentutakoa. Honek ematen die izua egoera

Beldurrak

lazgarri honekin gustura dabiltzanei. Kartzelak militantez lepo nahi dituzte agintariek eta ingurukoek beren bakea ikur. Eta ulergarria zait, haizearen jabetza ere duenak ez du nahi izaten berea ez den enbatarik, babestu gabe harrapatuko duen ekaitzik. ETarik gabeko Euskal Herriari diote beldur, kartzelak militante gaituez hutsik eta herriak bere herritar emanez aberastuak irudikatze hutsak erotzen ditu, orain duten agintea demokratikoki mantentzea ez dela posible jakitun. Gehiegi dute jokoan eta dena galtzeko, tranparik egin ezean irabazteko gai ez denak jokatze hutsak galtzen baitu. Garai hobeak datozkigu, zain geunden. ■

BERTSO BERRIAK

Miren Artetxe

Begi zimurtuetatik

BERTSULARIEN ELKARTEA



I

Urteak bete, joan,
pasa edo egin,
kontuak kontu batzuk
badauzkat nerekin;
nahiz ohitu naizen zuen
betaurrekoekin,
gaur begiratzeari
nahi nioke ekin
*nahiz ohitu naizen zuen
betaurrekoekin*
oraingo munduari
nere begiekin.

II

Egun bat, tik-tak, tik-tak,
bi erloju bira;
jendea denborari
segika bizi da,
segunduen mendean,
orduei begira
ta nahiz bizitza neurtu
orratzen neurrira
*segunduen mendean,
orduei begira*
egunak lehen bezain motz
ta luzeak dira.

III

Ondokoak ikusten
ditut gehiegitan
galbahea jarrita
besteen begitan.
Guk ere gaur bezala,
handitan, txikitan,
ez genekien zer nahi
genuen egitan.
*Guk ere gaur bezala,
handitan, txikitan...*
Baina, ez ginen bizi
besteen inbiritan.

IV

Hain gaude denboraz motz
ta hain lanpetuta,
orduak eroslerik
onenei salduta,
alferrikako mila
ardura hartu, ta...
Mundua hala doa,
ez da gure kulpak.
*Alferrikako mila
ardura hartu, ta...*
Maiteen ditugunak
gutxien zainduta.


V

Ez dut aspaldi jaio
izanaren penik
argazki urratu bat
bihur nazakeenik.
Lehena orainaldi
izan zen lehenik,
nahiz baden zuri-beltzez
ikusten duenik.
*Lehena orainaldi
izan zen lehenik,*
ez pentsa koloreak
bart sortu zirenik.

VI

Laster gara gurpilak
ematean buelta
gu lurpean ta zuek
zimurrez beteta
bitartean mantendu
dezagun oreka
denok hartuz elkarri
entzuteko beta
*bitartean mantendu
dezagun oreka*
mundura ez da inor
zahar jaio eta.

DOINUA: Oskorriren “gogoratuko zara herriko jaixetan”,
edo *Fauna Txiki bat bertsotan* diskoan Sarasua anaiek Xanti Iparragirrerri jarritakoak.



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

Gregorio Galvez

«U2 bezalakoak ekartzeko ez dira aproposak diru-laguntzak»

Ourensen jaio zen orain dela 62 urte, Terra de la Chispan, eta halako txispa dauka berak ere: umorea, irudimena eta etorria barra-barra. 1969an Donostiara etorri eta beti irakaskuntza lanbide izan badu ere, 42 urte pasa ditu Herri Irratiko mikrofono atzean. Donostiako rockaren eragile eta La Orquesta Mondragonen sortzaile izan da. Musika da gehien gozatu eta jorratu duen arloa: Club 44, Música Básica, Sector Rock eta beste hainbat saio arrakastatsu gidatu ditu. Maiatzean Onda Vascak Herri Irratia bereganatzearekin bat, saio gabe gelditu zen Galvez.

IKER BARANDIARAN

Argazkiak: Dani Blanco

Noiz zaletu zinen musikan?

Lehenengo oroitzapenak dira Galizian, zelai batean eserita, makila eskuan eta futbol partidu bat erretransmititzen. Uste dut irratia odolean neramala. Eta 1962an Galiziako hondartza batean Eskandinaviako bikote batekin Beatles entzun nuenean txundituta gelditu nintzen. Gero etorri ziren Rolling Stones, Kinks...

Hasieran Radio Galician ibili zinen eta gero Donostian.

Bai. Galizian nengoela, lagun bat Donostiara COPEra etorri zen eta esan zidan plaza bat zegoela Radio Popularren. Janis Joplin eta Jimmi Hendrix hil ziren urtean etorri nintzen, musikarentzat zorigaiztoko urtean. Denetatik egiten nuen: iragarkiak, elkarrizketak, albistegiak, lehiaketak... guztia zuzenean. Irakasle funtzionario plaza Donostian nengoela atera nuen.

Iñaki Gabilondo hasi zen zuzendari.

Lanerako gogoia ekarri zigun eta jendea espezializatu zuen. Niri bizitza aldatu zidan. Gazteentzat rock programa egiteko esan zidan. Musika gustuko nuen eta banekien nor zen Bowie. Diskorik ez zegoen, baina jendea Londrestik irratsaia etortzen zen aurkeztera. Orduan jesuitek irratia hartu zuten eta Loiola irratiarekin batu. Entzule asko genituen. Beste irratietan Manolo Escobar,



Rafael... jartzen zituzten eta nik Rolling, Kinks, The Who, Bowie edo Lou Reed-i buruz hitz egiten nuen. Mariano Ferrer AEBetatik etorri berria zen eta hitzak itzulteko eskatzen nion.

Galiziar batentzat Donostia ilargia zen, 1969an?

Europara heltzea izan zen, justu San Sebastian egunean. Kristoren iskanbila zegoen eta grisak kaletik [barrez]. Franco hil aurretik, Herri Irratia irratia euskalduna egiten hasi zen. Club 44 irratsaia hasi nuenean Ez Dok Amairuko artistak jartzen nituen eta saioa Mikel Laboaren *Gernikarekin* bukatzen nuen. Laboa saioan egon zen, baita Ruper Ordorika ere mutikotxoia zela... eta gaztekeraz elkarrizketatu nuen!

Luis Llach ekarri zenuen...

Bai, 1973an MusikaRock 73 antolatu, eta lehenengoz Donostiara Luis Llach ekarri genuen. Poliziak atxilotu gintuen, galarazitako kantuak jo zituelako. Galarazitako kanten zerrenda poltsikoan nuen, baina... [barre egin du]. Eta Gipuzkoa Plazako Sheraton diskotekan disko-forumak egiten genituen: diskoa entzun eta gero hitz egin, eta batzuetan kontzertuak ere bai.

Club 44tik autobus ugari eraman zenituzten kontzertuetara.

1973an hasi ginen. Oso alferra naiz gidatzeko, baina zuzenekoak ikusi nahi nituen. Autobusak beti goraino betetzen ziren. Espainiako Estatuan lehenak izan ginen.



Bestelako garaiak

"Gogoan daukat Anoetako belodromotik haririk gabeko mikro batekin Phil Lynotten baxua hartu nuela 1977an, kable gabe jotzen zuelako, irrati bidez... Baxua bakarrik hartu genuen, FMko sintonia berean zegoelako eta hori emititu".

Javier Gurrutxagari bultzada eman zenion...

Gezurra zirudien elizaren irratan halakoak egin ahal izatea... Lagun asko biltzen ginen: Gurrutxaga, Popotxo, Txeli... Taldea eratzea pentsatu genuen eta La Orquesta Mondragonen ikuskizunaren zuzendari eta lehen diruzaina izan nintzen. Donostiako lehen kontzertuan, Los Angelesen, margolanen erakusketa mugikorra egin genuen, Gurrutxagak emaztegai jantzita Lou Reed abesten zuen bitartean. Gerora, Madrilera jauzia egin zutenean, "vente con nosotros" esan zidaten, baina hemen gelditu nintzen.

Egia da rockak, poztasun handiak emateaz gain, burusoil utzi zintuela gazte?

Gehiena Touloussen jausi zitzaidan, The

Who Keith Moonekin ikustean! Aita ni baino ile gehiagorekin hil zen. Familiako ardi burusoila naiz.

Zer disko izorratu dituzu irratan?

Ramones-en *Rocket to Russia*. Disko batzuk bikoiztuta neuzkan, badaezpada. Ugartek behin esan zidan Ramones Donostiara etortzearen erruduna ni nintzela. Disko asko oparitu egin ditut. Ez naiz mitomanoa izan, Rollingekin izan ezik.

Musika taldeekin harreman estua izan duzu.

Entsegu lokal askotara joaten nintzen grabagailuarekin, herrietara, Madrilera, edonora... Gaur egungo artistak oso *divoak* dira, baina ordukoak ez. Soinu mahaitik kantak grabatzeko baimena ematen zidaten. Gaur hori pentsaezina da.

Zelan uztartu duzu gaua eta rocka irakasle lanarekin?

1970eko hamarkadan zorte handia izan nuen eskola gainean bizi nintzelako, baina zenbaitetan egun argiz heldu nintzen lanera kontzertutik bueltan. 30 urterekin Bowie ikusteko Parisera joan eta etorri, eta 09:00etan eskola zabal daiteke. Irakaskuntzak ere asko eman dit, apur bat Dr. Jeckyll eta Mr. Hyde izan naizen arren.

Esatariaren eta entzulearen artean harreman bizia zegoen...

Irrati gutxiago zeuden orduan, eta esatariak askoz publikoagoak ginen, irrati gizonak. Baina, Musica Básica saioarekin bigarren gaztaroa bizi izan dut. Asteburu goizetan boleroak, rantxerak eta balsak jartzen nituen, nahiz eta Sector Rock saio punk eta alternatiboa ere egin. Ia 80 urteko amonek deitzen zidaten eta kalean besarkatzen ninduten. Irratiko audientzia onena zuen.

Zer esan zizun Rory Gallagherrek euskal txapela jarri zenionean?

Galdera oso ona da. Hiriarentzat oso pauso garrantzitsua izan zen, mugarrria. Donostia Europa mailako rock guneetako bat bilakatu zen. Eta luzaroan Madril eta Bartzelona arteko triangeluan egon ginen. Zeresan handia izan zuen Mikel Ugartek. Genesis taldeak kontzertu bat gehiago egin zuen biran, hona etortzearen.

Kontzertu aurkezlearen figura ez dugu ezagutu...

Rock kontzertuek aurkezlea izaten zuten eta Donostian ni, ez zegoelako beste ahots rockorik. "Arratsaldeon, zer moduz zaudete?". Eta jendeak: "Isildu, astun hori", "Puto

calvo”... Massiel Trinitate plazan aurkeztu nuen. Bost minutu pasa nituen berari buruz hitz egiten eta bukaeran esan nuen “Zuekin, *Massiel de España*”. Eta jendea txistuka [barrez]. Kontzertu aurretik Massiel kikilduta zegoen, baina gero agertokia jan zuen. Mari Trini ere aurkeztu nuen Q diskotekan; oso jatorra zen.

Eta DJa ere izan zara, ezta?

Bai, aitzindaria izan nintzen. Erretereriako diskoteka baten ostegun gauetan aritzen nintzen, 1978-80 artean. Musikaz inguratuta bizi izan naiz, baina etxean oso musika gutxi entzuten dut. Niretzat musika zaletasuna eta lana da; irratian jartzearekin nahikoa dut.

Luis Angel Garcia eta zu bakarrik zeundeten rocka lantzen irratietan?

Bai. Saioa ordu berean zen, baina lagunak ginen: materiala trukatu, bestearen saiora joan... Gaur egungo lehiakortasunarekin sinestezina da. Nik Peter Gabriel izan nuen saioan, baina berak Bruce Springsteen.

Elvis beti izango da erregea zuretzat?

Bai. Elvis, Bob Dylan, Bowie/Lou Reed, Rolling eta tarteka Pink Floyd; baita Supertrampen hasiera ere... Nire azken zoramena Coldplay da, ez daukat barkamenik. Rolling zazpi alditan ikusi ditut. Lehena Bartzelonan, Franco bizi zela eta grisen aurrean korrika bukatu genuen.

Rockak ez al du adinik?

Tamalez bai. Adibidez, bada urtebete ez nai-zela gaztetxe batera joan. Jendeak begiraten dizu eta uste du bateriaren aitona zarela, eta zuk ezetz, taldea ikustera joan zarela. Gazteek onartzen naute, baina batzuetan zaila da. The Who, Rolling, Pink Floyd... ikusi ditut, baina horiekin bezainbeste gozatu dut gaztetxeetan 20 lagunekin izerditan, garagardoa gainetik botatzen dizutela.

Piratea bultzatzen aitzindari

“Iparraldera joaten ginen disko bila, hemen ez zeudelako.

Batzuetan diskoak osorik jartzen nituen jendeak etxean grabatu zitza... auskalo zelako soinuarekin”.

Zure burua punkytzat daukazu?

Batzuek esango dute ezinezkoa dela: irakaslea, kultura... baina punkya naiz, punk pentsamen-duz. Bat egiten dut RIP, Vomito eta halakoek egin nahi zuten iraultzarekin. Baina izan naiz pop eta funky ere... Musika guztia maite dut.

Donostiak aspaldi galdu zuen kontzertu handien trena?

Bai. Bilbo handiagoa da eta Udalak Etxetxu-ko kiroldegia merke uzten du. Hemen, ordea, zaila da. Udal batzuek asko lagundu dute, baina ez nago guztiz ados. Aproposena da Aldundiak Gaztemaniak-ekin egin zuena: talde berritzaile eta desberdinak ekartzeko laguntzea; ez U2 ekartzeko. Horiek ez dira lagundu behar; nahi duenak ordain dezala.

Saio gabe utzi zaituzte...

Bai. Onda Vascakoek ez didate ezer esan, ez eskerrak, ezta agur ere. Agian politikoagoa izan banintz, gaur egun nonbait egongo nintzen. Dena dela, halako saioa irati independente batek egin behar zuen. Herri Irratiak asko egin du musikagatik, herriagatik, euskaragatik... Polizia atean genuen, zentsoreak gainean... Hori baloratu eta eskertu behar da, eta ez da egin. Orain erraza da euskararen alde egitea, baina ez 1972an.

Zer asmo daukazu orain?

Ez dakit. Irrati batek ordubete eskainiko balit, hartuko nuke. Arrakasta izan duten zazpi saio egin ditut; beste bat asmatuko nuke. Ilerik ez daukat, baina irudimena bai, eta 42 urteko esperientzia!

Jendeak ezagutzen zaitu kalean?


Lehen, askok; gaur egun, gutxi. Baina badi-tut pasarteak: Altxako igogailuan edo tindate-gian ahotsagatik ezagutzea. Azken finean, 42 urte dira isildu gabe. Badakizu zer den egitea gehien gustatzen zaidana? Publizitate kuñak. “*Señora, compre en Mamut?*”. ■

SaiazGetaria
H o t e l a

Roke Deuna, 25 • GETARIA
www.saiaszgetaria.com • Tel.: 943 140 143



bilera gela



Musika

Karliberalen errepublikara bidaia gerraren gorrian

Egin duela berriz ere: Joseba Tapiak II. Gerra Karlistako bertsoak hartu eta gaur eguneko doinuz jantzi ditu. *Eta tira eta tunba* du izena emaitzak: txapelgorrien eta pezeteroen arteko ezinikusiekin osatutako 22 pieza.

Testua eta argazkia:

GORKA BEREZIARTUA

LEHENENGO NOTATIK antzematen da desberdintasuna. Hori ez da trikitia, hori haizezko instrumenturen bat da, inondik ere. Hara hor lan osoaren ezaugarri nabarmenenetako bat: metalek daramatzate kantetako asko; soinu txikia ahotsaren laguntzaile doia da, ez du beste diskoetako protagonismorik. Zergatia, *Eta tira eta tunba* aurkeztean eman zuen Tapiak berak: garai hartan, II. Gerra Karlistan, trikitia asmatua izango bazen ere, ziurrenik gure artean gutxiak zutela infernuko hauspoaren berri. Bestelakoak izan ziren erromeria odoltsu hartako musikak. Sua saxotu behar: bonbak, bombardinotu.

Emaitzak, egia da, badu garai bateko banden eitea, baina pieza batzuk lasai asko izan zitekeen Goran Bregovic batek sinatzeko modukoak ere. Gaur egungo diskoa da *Eta tira eta tunba*, edo, zailago esateko, atzokoaz gaur egindako disko ateporala. Erritmo sinkopatuz ezagutuko ditugu batzuek besteen kontra kantatuak eta besteek batzuei emandako erantzunak.

Espiritu alprojako lana, aurkezpenaren ondotik argi ikusi zenez. Tapiak hiruzpalau kanta jo zituen gerturatu zirentzat, tartean diskoari izena ematen diona. Entzuleei, mesedez, hitzak errepikatze eskatu, eta “biba gure fedia Espainiakua” dioen partera iristean, irriño bana aurpegian abestu zuten gonbidatuek. Mezua gauza bat baita, interpretatzeko moduak, ordea, goitik behera mutarazten du. (Kontraerreformazale nonazionalistentzat oharra: hitzekin bat egin

arren, igual ez duzue maiteko Tapiaren jarduna. Ez esan gero, inork abisatu ez dizuenik).

Errepublika karliberala

Bi bando eta bi banda: karlistena (Iban Urizar, Ibon Irijoa, Asier Ituarte eta Ramontxo Vega) eta liberalena (Filipe Aldako, Alain Martineau, Mintxo Garaikoetxea eta Inazio Tolosa). Biak izan ditu lagun kantautoreak

diskoan. Aurkezpenaren kariaz su-eten txikia egin arren, aurrerantzean ere banda bakoitza bere bide-tik ibiliko dira. Kontzertu batzuetan karlistekin ariko da Tapia, beste batzuetan liberekin. Jokin Irungariren jazpana izango da bitartekari bakarra.

Ekidistantzia ote? Ez, oxymorona. Patxi Larrionen hitzetan “karliberalen pentsaera” islatzen dute lan honetako kanteak. “Pen-

tsaera karliberalik ez bada, agian asmatu egin beharko genuke” esan zuen aurkezpenean, eta diskoak “karliberal horien sinesmenak eta egindako hautuak ulertzen” lagunduko duela.

Euskal kantagintzan ia inork urratu gabeko bidea da behintzat. Tapiak, bromoso: “Harrituta nago nola ez didan inork aurrea hartu. Besteek egin, besteek gorde eta besteek bildutako altxor bat hartu eta entzungarri jarri dut. Biba ni!”. Gerra garaietako kantak ez baitira gehiegi berreskuratu gurean –36koaz Tapiak berak *Agur Intxorta maite* diskoan egindako lana, berriz ere salbuespen–, are gutxiago Karlistadetakoak. Disko hau izango ahal da antzeko proiektu berrien akuilu. ■




Joseba Tapiak karlisten eta liberalen bandak elkartu zituen joan den astean, *Eta tira eta tunba* diskoaren aurkezpenean.

Denborapasak

ANA ZAMBRANO

Hitz gezidunak



Kike Amonarizen umorea

Bizilaguna kexu

Sei hilabete itsasoan pasa eta gero, arrantzalea portura heldu da. Kaitik etxerako bidea arineketan egin eta laugarren solairua bitarteko eskaileraren mailak binaka eta estropezuka igo eta gero, txirrina jo du. Emazteak atea ireki eta biak musuka besarkatu dira. Hitzik esan gabe, korridorean barrena elkar erantzten hasi dira eta ohean etzan orduko onik ez dute izan. Hortik aurrera,

entzutekoak izan dira hango antsia eta oihuak, hango hasperen eta txilioak....

Eta bat-batean “tok-tok-tok” entzun da... Hirugarren solairuko bizilaguna erratzaren makilarekin sabaian joka eta oihuka:

– Isilduko al zarete behingoz! Arratsaldero hau jasan beharra ere!

Soluzioa

U	E	I	R	A	T	I	B	T	B
I	R	A	T	I	B	T	B	T	B
B	O	S	T	I	S	A	S	I	D
P	A	S	I	O	N	S	E	R	O
T	P	I	P	I	T	A	G	A	U
J	U	J	E	P	U	K	I	L	U
Z	I	M	A	R	R	O	P	L	A
Z	E	B	A	R	N	E	A	A	N
L	A	N	D	A	P	A	R	T	E
D	E	I	S	M	O	G	I	Z	A
A	I	Z	K	O	L	A	R	I	E

Liburuak

KRITIKA

Mugetan.
Hasier Etxeberria.
Elkar, 1989.
112 orrialde. 11,60 euro.



Hemeroteka
Aritz Galarraga

Schengen aurrekoak

JURNALISTA ustez grazios batek, aldizkari serioz honetantxe, zera esan zion Hasier Etxeberriari: *Bost idazle Hasier Etxeberriarekin berbetan* liburuagatik zela ezagun idazle modura (nota bene: aldizkari honek ez du gisa horretako sasi-kazetaririk merezi). Eta Etxeberriak erantzun zion ezetz, noski, *Eulien bazka* edo *Inesaren balada* liburuagatik zela ezagunago, hori uste zuela behintzat, baina tira.

Gaztak ager ditzadan: 1984tik, argitaratzen du libururen bat tarteka, etenik gabe. Zerrenda luzea da, genero ezberdinak, halako baieztapen txepelik entzuteko. Baina kontua da, oraingoan ere, iradokizunei kasu egin ez eta hasieretara jo duela jurnalista ustez grazios eta orain kritikari arropak beztitu dituen honek. *Mugetan* lehen eleberria aukeratu dio kritika arkeologikoa xede duen saila berrabiatzeko.

Labur antzean nobela laburraren haria: Nati eta Mikel harrapatzen ditu poliziak, komisariara eramane, kanta dezaten nork eman zion pistola Tximuri, eraso ekintza armatuen garaiko eta kideari. Hori ez, baina ezkutatzeko beste zerbait dute bi atxilotuek, Tximu ere korapilatzen duen zerbait. Eta ezin Mikelek polizia etxekoa jasan: ateratakoak Tximuren arrastoan sartzen du polizia, ezinbestean.

Mugetan honek harrapatzen du garaiko errealitate politikoa, klabe politikoan idatzitako eleberria izan gabe. Konpromisoa, militantzia, sasia. Baina bestelakoa da interpretazioa, pertsonaiak eta haien barrukoak karraskatzen ditu, Nati eta Mikel ziegara eta Tximu zulora daraman motiboa prosaiko da oso. Ahairu beltz batean dago idatzia gainera, atxilotuen abokatua baino detektibe ez oso abila dirudien Beistegi izeneko pertsonaiak iradokitzen duen bezala.

Schengen aurreko nobela da *Mugetan*, kronologikoki, baina baita Etxeberriaren bibliografian ere. Ondoren euri ugari egin duela, alegia, eta onerako. Garairako izan zuen meriturik, Olaziregik dio: "Konta-teknika modernoak darabiltza, plano alternantzia azkarrak, zehar estilo askean tartekatutako pasarteak, kameraren begiari jarraiki antolatutako deskribapen objektibok". Gaingituak dira, ordea, horiek denak, eta irakurketa xalo xamarra, piperrik gabea da gaur eguneko. Gorabehera urrikoa, zurrunezia, konparazioz bete.

Zalantza gutxi: beste eleberri batzuekin lehenaren langa gaingitu du Etxeberriak, nabarmen. Lerro beltzari jarraiki, eta gomendioari kasu eginez (azkenik!), *Eulien bazka*, esate batera. Eta bestelako lerro batean, bakanago, *Iturrino bandia* bikaina. *Bost idazle Hasier Etxeberriarekin berbetan* ahaztu gabe, noski. ■

Chillidaren biografia haurrentzat

9 eta 12 urte bitartekoentzat idatzia dago *Eduardo Chillida, espazioaren eskultorea* biografia. Gorka Calzadak eskribitu du, irakurle gazteek gustura hartzeko moduan, baina zehaztasuna eta sakontasuna galdu gabe. Txertoak argitaratutako liburuak azaltzen du nola Chillidak txikitatik izan zuen edozein paperetan zirriborroak egiteko zaletasuna eta arratsalde euritsu



Eduardo Chillida...
Gorka Calzada.
Txertoa.
123 orrialde.
9,95 euro.

eta bakartietan itsasoari so, bere gauzetan pentsatzeko afizioa. Hortik etorriko ziren, ziurrenik, nagusiagotan eskultore izateko oinarritzko osagaiak. Baina artista berezia izan zen Chillida: materialekin eskultura egiteaz gain, hutsarekin ere egin zitekeela erakutsi baitzuen. ■

Mandasko dukearen bizitzari buruzko guztia

Carlos Rilova Jericó idatzi du Fermin Lasala y Colladoren biografia. Kutzaren eskutik publikatu den lan hau Rilovaren doktore tesiaren azken emaitza da. Mandasko dukea zen Lasala eta bizitza bakarra eduki partez, lauzpabost izan zituela esan liteke: hamaika negoziotan sartuta ibili zen, baita moltsa ederki gizendu ere; baina, horrez gain, historia liburuekin zaletasun berezia izan zuen, arlo militarrean karrera egin zuen, baita politikan ere. Biografia honetan esaten denez, XIX. mendearen amaieran Parisen eta Londresen Mandasko dukea bazen nor: inperioak egin eta desegin zituen

noiz eta *Belle Époque* betean, Europa kolonialismorantz zihoanean. ■



Vida del duque de Mandas.
Carlos Rilova.
Kutxa.
438 orrialde. 17 euro.

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Ya Ilegó.
The Zepo.
Autoekoizpena.
Iraupena: 45'09".
7 euro.

Kaleko hizkuntza eta etxeko lanak

ORAIN DELA BI URTE hernaniar hauen lehenengo lana esku artean izan nuen, zur eta lur gelditu nintzen Plate-ro y Tú-ren eskolako gaztelarazko rock urbano lana aurkitu nuelako; ez nuen espero. Jarraitzaile kopuru polita dute eta gogotsu aritzen dira lanean. Orain-goan, baina, hastapenetako ildotik erabat aldendu ez badira ere, jada ez dira iraganeko gazte berberak; bestelako jantziak ibiltzen dituzte. Hainbat kantak Los Suaves eta Extremoduoren

arrasto nabaria badute ere, bestelako tempo eta ñabardurak aurkitu ditugu, askoz zabalagoak. Saxo, tronpeta, hammond, teklatu eta bestelakoekin pieza ia errexitatuak, balada trazakoak eta blueseroagoak ere batu dituzte; baina baita orain arteko kanta azkar eta rock-and-rolleroak ere. Hitzei dagokie-nez, poesia uztartuz, lantzen ahalegin-tzen dira.

www.thezepo.com

The Zepo

«'Rock Urbano' bezala etiketatuak gaude, baina abesti bakoitza mundu bat da diskoan»

Ya Ilegó (Iritsi da). Itxaronaldia edo prozesua luzea izan da?

Itxaronaldia baino prozesu luzea-goia izan dela esango genuke. Etxeko lanak ondo egin nahi genituen eta gainera Luis bateria jotzaile berria taldean sartu zen.

Aurreko diskoko kantuak bat-batekoak ziren; hau, berriz, landuagoa da eta moldaketa asko ditu. Heldu zarete?

Esperientzia handiagoa dugu eta gogoia genuen abestiei ukitu berri batzuk emateko, adibidez, saxoa, tronpeta, hammonda, teklatura... Baina sortze prozesua betikoa izan da, asko inprobisatzen dugu, beraz esan genezake, abestiak eskatzen ziguna eman diogula.

Abesteko era ere dezente aldatu duzue eta tarteka errexitatu egiten duzue. Zer lortu nahi duzue? Zer eskatzen dizue gorputzak?

Saiatu gara ahotsari aurreko diskoe-tan baino presentzia handiagoa ematen. Abesteko modua asko alda-



tzen da, adibidez, abestiaren melo-dia oso markatua bada eta gainera hitzak sakonak badira, abeslariak sentimendu handiagorekin abes-ten du. Bestalde, kanta psikodeli-koagoa denean eta hitzak bihurriak badira ezberdin abestea iradokitzen dio Iñakiri.

Lan hau ere Santa Barbara 89 gara-je-estudioan grabatu duzue zuen kasa, eta emaitza dotorea da...

Mila esker. Garajea pixka bat txukundu dugu. Pixkanaka estudio txiki bat egiten ari gara, diskotik diskora aldaketa txikiak egiten dizkiogu-eta, baina oraindik ezin esan estu-dioa denik.

Aizue, haizezko instrumen-tuak ez dira hain tipikoak rock urbanoan, e!

Egia esan, disko hau oso aberatsa da alde horretatik. Egia da "Rock Urbano" bezala etiketatuak

gaudela, baina abesti bakoitza mundu bat da disko honetan, blues, hard-rock, rock & roll, punk eta funk estiloak aurkitu daitezke.

Oraingoan ere kanta bat euskaraz egin duzue...

Bai, eta etorkizunean pixkanaka gehiago egiteko asmoa dugu. Egia esateko, euskaldunak izanda, gogoia dugu abesti gehiago euskaraz sor-tzeko, horretan gabilta. ■

Ezpalak

JON TORNER

Mikel Laboari omenaldi diskoa egin diote hainbat taldek



TXINAURRIAK. *Mikel Laboari Ikasitako Kantuak* lana kaleratu-ko du Bidehuts diskoetxeak abenduan. Kantari ezagunek Laboari egindako omenaldia dira CD bikoitza osatzen duten 19 kantak. Diskoan ondoren- goek hartu dute parte: Berri Txarrak, Ruper Ordorika, Anari, Atom Rhumba, Audience, Lisabö, Inoren Ero Ni, Gora Japon, Ama Say, Amodio, Xabier Montoia, Hotel, Willis Drummond, Zura, Borrokan, Gabon Caligula eta Dilistak. Bidehuts-en webgunean (www.bidehuts.net) jada eska daiteke diskoa.

Transmedia eta 3D jardunaldia Donostian

ZINEMA Ikasleen Nazioarteko IX. Topaketaren baitan, Transmedia eta 3D jardunaldia egingo da Donostian hilaren 22an. Ikus-entzunezkoen esparruan sortzen ari diren joera berriak izango ditu ardatz, eta bi zatitan banatuko da. 3D zinemaren inguruko tailerra batetik, Príncipe zineman egingo dena, Manolo Gómez Santos Dygra Films-eko lehen-dakariaren parte-hartzearekin. Eta, bestetik, nazioarteko Transmedia jardunaldia: Lance Weilerren hitzaldia, Robert Figuerasen *Panzer Chocolate* proiektuaren aurkezpena eta Ian Ginn ekoizleak gidatutako eztabaida jasoko ditu. Arrasate kaleko Kutxaren aretoan egingo da Transmedia jardunaldia.

Marga Altolagirre aktorearen arte eszenikoen laborategia abian da jada. Donostian dago, Elozegi hiribidean. Haren helburua da “arte eszenikoen irakaskuntzaren inguruan Donostialdean eta Euskal Herri mailan dagoen hutsunea betetzea”. Antzerki eskolatik harago doa, edukiak sortu eta erakusteko asmoa baitu. Klaseak hasi diren arren, izena emateko epea hilaren bukaera arte luzatuko da.

Sigfrido Koch

‘Irudiaren poeta’ deituriko argazkilaria omentzeko helburuz, Koch familiako hamabi kideren 100 bat argazki bildu dira Donostiako Kutxa Boulevard aretoan.



SIGFRIDO KOCH (GUREGIPUZKOA.NET)

Harrapatutako uneak izeneko erakusketa urriaren 12ra arte izango da ikusgai.

Martin Ugalde ipuin lehiaketa jarri du abian Andoingo Udalak. Hamar eta hamazazpi urte bitarteko Andoingo, Adunako, Asteasuko, Amasa-Villabonako, Larraulgo eta Zizurkilgo gazteek har dezakete parte. Lanak urriaren 8 edo 13rako aurkeztu behar dira, bakoitzaren adinaren arabera.

Artium museoak Ipiña Bidaurreazaga bilduma pribatuko 54 lan jaso ditu bere gordailurako. Euskal artisten obrak dira guztiak. Txomin Badiola, Jon Mikel Euba, Elena Sainz, Dario Urzay eta Nestor Basterre- txearen artelanak daude, besteak beste.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Yorick Liburudendan edo
www.libreriayorick.com
eskura dezakezu

Argitaletxearen
azken argitalpena

Baba zango-horiak
Catherine Zambon
(Itzulpena Txomin Heguy)

argitaletxea
Artezblai



San Frantzisko, 15ren parean, 48003 - Bilbao / Tel: 944 795 287 / www.libreriayorick.com / info@libreriayorick.com

Abarrak

Zinemaldia 2010

SAIL OFIZIALA

GORKA BEREZIARTUA

Gizen, kartilago eta odolbildu artean haragi bila

HARAGI XEHATUAK HORI DAUKA: puska onen bat tartean-tartean jaten baduzu ere, animalia-erazten zati nobleak beste gauzetarako erabiltzen dituztela, eta sobran dagoena joaten da disimulan hanburgesara -harakinen batek kontra egingo dit, seguru-. Sail Ofizialean halako zerbitzuak erabiltzeko digute lehen hiru egunetan.

Chicogrande ez zen inor txoratzekoa, baina behintzat bazeukan xolomo pixka bat. Hurrengo koska, belarri puska: Oscar Aibarren *El gran Vázquez* ez da horrelako jaialdi baterako okela, nahiz eta, lerrook idazten dituenari, txikitan Bruguera komiki asko irakurri zituen, jasagarria egin zitzaion.

Larunbatetik *Satte Farben vor Schwarz* txukunena: Sophie Heldmanen *opera*

prima zahartzaroko bikote-harremanei buruzko lan sotila da. *Akma-Reul Bo-atta* korearrak odol gehiegi; gordinetia, zaila frijitzeko. Peter Mullanen *Neds* aldiz, gaizki ebaki eta amorfo xamar geratu den xerra da. Zatiren bat guri, baina erditik aurrera mondongo irentsi ezina.

Igandeaz hobe ez hitz egitea. Tira, pixka bat. Esateko, *Bicicleta*, *cullera*, *poma* ere ez dela Sail Ofizialerako, telebistan igandez botatzeko baizik. Raul Ruizen *Misterios de Lisboa*... Badakizue lau liburuko txuleta eztairitik indarka sartzen dizuetenean sentitzen dena? Lau orduko ekoizpen portugaldarrak ia akabatu zuen kazetari hau. Horrela jarraituz gero, medikuak dietaz aldatzeko esango dit.



Sophie Heldmanen *Satte farben vor schwarz* filmeko eszena bat.


ZABALTEGI

MIKEL GARCIA

Sentimenduekin jolasean

SAIL OFIZIALA BAINO HOBETO doa oraingo Zabaltegi, beti bezain anitz. Zinemaren xedea ikuslea hunkitzea omen da, emozioak sortzea, eta sentimenduekin jolastea behintzat, onerako edo txarrerako, lortu dute atal honetako pelikulek: *Poetry* eta *Bal* filmek, modu fin eta ez-tan, zirrara eragin ziguten; *Buried* agonikoak ordu eta erdiz tentsioan mantentzea lortu zuen; *Happythankyoumoreplease* komedia urbanita eta politikoki zuzenak irribarrea ateratu zigun; sexuaren espresibide ugariekin jokatzen duen *Nothing's all bad* danimarkarrak aho bete hortz utzi gintuen; eta aspertzeko astia ere izan dugu, *Marieke*, *Marieke* drama astunarekin.

Bereziki aipatzekoa, Zabaltegin parte hartzen duen euskal ekoizpen bakarra: *Izarren argia*. Gerra Zibilean, Saturrarango emakumeentzako kartzelan jazotako krudelkeriak ditu ardatz. Gure historiaren pasarte lagarria da, gogorra, modu apalean eta txukun kontatua. Trama osagarriek bizitasuna eta erritmoa ematen diote istorio nagusiari, mojen aginduetara sufrimendu ugari pairatu zituzten presoetan zentratua. Lehen film luzea duen honekin, zuzendari berrien saria eramanezake Mikel Rueda bilbotarrak. Etorkizunean gertutik jarraitu beharreko zinemagilea, duarik gabe.



Izarren argia filma.


www.argaia.com/zinemaldia-2010 helbidean, aurtengo Zinemaldiko pelikulen kritikak.

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Ukigailu artifizial ultrasentikorra

UKIMENA DA giza zentzuetan, ordain artifiziala lortzeko zailena. Baina berriki, arlo horretan egindako aurrerapenen berri eman dute AEBetako bi ekipok, *Nature* aldizkarian



LN, THE ROBOTCUB CONSORTIUM

Gizakiak eskuan arrautza bat hartu dezake puskatu gabe, eta tximeleta bat gure larruazalean pausatzen bada hori sentitzeko gai gara. Gure larruazalari esker egin eta sentitu ditzakegu halako gauzak, eta robot edo bestelako gailuetan oso zaila da hori birsortzea.

Arestian aipatu bezala, bi zientzialari lantalde estatubatuarrek aurrerapen garrantzitsuak egin dituzte ukipen artifizialaren alorrean, 0,5 eta 20 kilo-pascal arteko presioa behar dituzten ekintzak detektatzea lortu baitute. Presio tarte hori guk arkatx bat mahai gainetik hartzeko atzamarrekin egin behar dugunaren antzekoa da.

Taldeetako batek sei zentimetro koadroko polimerozko gailua eratu du, eta besteak erdi-eroalez osatutako zazpi zentimetro koadroko gailua. Saiakera hauek epe luzera medikuntzan aplikazio ugari izan dezakete, batez ere protesien alorrean.

Arropa gorria daraman gizona erakargarriagoa da emakumeentzat

ROCHESTERREKO UNIBERTSITATEKO (AEB) Andrew Elliot psikologia irakasleak egin duen ikerketa baten arabera, kolore gorriak erakargarriago bihurtzen ditu gizonak. Gizon horiek goi estatus batekoak izango balira bezala ikusten dituzte emakumeek. Emaizta bera izan da, gainera, kultura desberdinetako emakumeen artean.

Baina zergatik hori? Mundu osoko eta garai guztietako gizarteetan kolore gorriak askotan goi mailako estatusa adierazi izan du; Txinan, Japonian, Saharatik hegoalde-ragoko herrietan eta garai bateko Erromako inperioan ere bai. Antza denez, jatorri biologikoa izan dezake joera horrek: primateengan, gorriak arraren nagusitasuna adierazten du; tximino emeek kolore hori duten arrak lehenesten dituzte ugaltzeko garaian.



Babeslea: iametza Interaktiboa

Robot eskalatzailea

ROCR robotak bi metro eta erdiko moketazko horma eskala dezake hamabost segundotan eta energia gutxi kontsumituz. Eskalatzeko gai den lehenengo robota da, eta gizakiaren eskalatzeko ahalmenean eta tximinoek adarrez adar jauzi egiteko ahalmenean oinarritu dira egiteko.

<http://ttiki.com/16656> (Gaztelaniaz)

Tete Rousse glaziarrek alboko herriari mehatxu

Frantziako Tete Rousse glaziarrean 60.000 metro kubiko ur dago, eta horren gainean 30 metroko izotz puska. Izotz hori uraren gainera eroriz gero ura mendian behera jausteko arriskua dago, eta Saint Gervais herria harrapatu dezake bete-betean. Horregatik ura ahalik eta azkarren ateratzen ari dira ponpa batzuen bidez.

<http://ttiki.com/16657> (Frantsesez)

Lehen denge kasua Frantzian

Uda hasieran zientzialariek adierazi ziguten dengea transmititzen duen eltxoa European detektatu zutela. Orain, Nizako biztanle batek denge birusa duela esan digute. Hau izan da Frantzian detektatutako lehen kasua.

<http://ttiki.com/16658> (Frantsesez)

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Cajurra

DARATULUAREN BEHAR HANDIRIK GABE ERE, zuhaitzen adina jakin, jakin daiteke. Brasilen, Pirangi do Norten, hondartza "liluragarriaren" parean, inon ezagutzen den cajueiro arbola handiena bizi da, *Anacardium occidentale*. 1888an aldatu zuen Luiz Inácio de Oliveira arrantzaleak. 500 bat metroko perimetroarekin 8.000 m² inguru itzalpetzen du, bi golde pasa; ederra! Brasilgo errekorren liburuan jasoa da eta 1981az geroztik baita Guinnessen ere. Bere aparteko tamaina hau aldrebeskeria genetiko bati zor dio: adarrak hazi, luzatu eta eutsi ezinezko zama hartzen dute, makurtu eta lurra ukitzen dutenean itsatsi eta adarren puntak zuhaitz berri bat bailitzan arbolari segida ematen dio. Kale artean harrapatua dago eta ezin du gehiago hazi, bestela batek daki noraino helduko

litzatekeen... Bere zale amorratuenean inguruetakotxeak eraisten hasi beharra dagoela diote. Uzta aldioro 80.000 inguru caju ematen dituela jotzen da, hiru tona, gutxi edo gehiago. Bere loreen zaleak dira erle eta beste, eta denak ezin azaldu ahalako erabileren artean bere izerdiarekin egiten den tinta aipagarri.

André Thèvet fraile abenturazale frantziarraren *Les singularitez de la France Antarctique autrement nommée Amérique*, 1557ko liburuan, bere errege kuttunak Brasilen eraiki nahi izan zuen kolonian topatu zituen landare eta abarren artean cajurra deskribatzen du. Gerora portugaldarrek mundu osora zabaltu zuten eta kolonietako salerosgai garrantzitsua izan zen.

Cajua, espainolez *anacardo*, frantsesez *anacarde* eta *noix de cajou* fruitu lehor gisara jaten da. Jaioterriko caju-tik abiatuta guk caju-hurra, cajurra deitu beharko ote diogu? Kolonietako salerosketetan, itsasotik barrena, makina bat euskaldunek erabiliko zuen eskuartean hur hau; ez zaigu, baina, inongo izenen berririk iritsi, neuri behinik behin. Pirangiko cajueiro izugarri hau Luiz Inaziok aldatu zuen urte berean Narbarteke erreto Jose Maria de Lakoizketak argitaratu eman zuen *Diccionario de los nombres euskaros de las plantas en correspondencia con los vulgares, castellanos y franceses y científicos latinos* ederean ere anakardo gisara jaso zuen.

GINOZAR-CC BY SA



Anacardium occidentale-aren fruitua.

11

Nafarroan soro eta baratzetara emaniko lurren %11 ekologikoan lantzen da, 30.800 hektarea. Kopuru izugarria. Bertan ekologiko zigilua daramaten bostehundik gora jaki sortzen dira. Jakien eraldaketa egiten duten enpresa nafarren ia erdiak, 76k, gai ekologikoak erabiltzen dituzte. Gai hauek ia 600 baserritarrek eta 60 abeltzainek sortzen dituzte.



Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Zezenen itzala Argien mendean

ESPAINIA, 1750EKO HAMARKADA. Zezenketa modernoa sortu zen. Aldaketa nagusia urte batzuk lehenago abiatu zen, XVII. mendearen amaieran: zezena jokatu ondoren ezpataz zezena hiltzen zuen oinezko bat agertu zen, matadorea. Ordura arte zezenketaren protagonistak zaldunak izan ziren, baina oinezkoek gero eta toki nabarmenagoa hartu zuten. XVIII. mendearen erdialdean protagonismo osoa eskuratu zuten.

Berehala zezenketa munduko lehen izarrak azaldu ziren: Joaquín Rodríguez *Costillares*, haren ikasle José Delgado *Pepe-Hillo* eta Pedro Romero. Delgadok zezenak oinez jokatzeko lehen araudia argitaratu zuen (*Tauromaquia o arte de torear*, 1796). Eta zezenketak masa ikuskizun bihurtu ziren; lehenago, zaldunen zezenketak nobleen kontuak ziren eta zezen festa herrikoia egungo entzierroen antzekoak ziren.

Harrigarria bada ere, ilustrazio betean, ikuskizunak iritzi hobeak jaso zituen atzerrian espainiar intelektual eta agintarien artean baino. 1760an, Edward Clarke bisitari ingelesak hauxe idatzi zuen: “Zezenketek ez dute krudeltasuna helburu; alde-rantziz, publikoak gehien txalotzen duena zezenketariaren adorea eta abilezia dira”.



Francisco de Goyaren *Tauromaquia* sortako aleetako bat. Margolariak, 33 grabatutan eta hainbat oliotan, XVIII. mendearen bigarren erdiko zezenketen nondik norakoak jaso zituen.

Espainiar politikari eta intelektual ilustratu asko, aldiz, Jovellanos bera, esaterako, zezenketen aurka zeuden. Horien ustez, festak legea haustea eta istiluak eragiten zituen, zaleek lanegunak galtzen zituzten eta herritarrek egoki hezteko oztopoa zen. José de Vargas Ponce ministro ilustratuak horrela deskribatu zituen zezenzaleak: “Heziketarik, argirik eta esperientziarik gabeko gazte buruarinak, bizio-tsua, beti istilu gose direnak eta, hitz gutxitan, hierarkia guztien gorotza”.

Hala, Alfontso X.a erregeak XIII. mendean egin zuen moduan, ongintzazkoak ez beste zezenketa guztiak debekatu zituzten 1778an. 1805etik aurrera ongintzazko zezenketak ere legez galarazi zituen Karlos IV.ak.

Bost urte geroago Josef Bonaparte Espainiako errege frantziarrak atzera legeztatu zituen zezenketak. Espainiako Independentzia Gerra eta gero errege arrotz gorrotatua egotzi zutenean, frantziarren agintaldiko erabaki asko bertan behera geratu arren, zezenketek legeztatuta jarraitu zuten. Zezenketei buruzko eztabaida azkenekoz 1877an iritsi zen Espainiako Parlamentura. Baina diputatuek zezenketak debekatzeko proposamena baztertu zuten, herritarren nahien kontrakoa zelakoan.

Arrastoak

Xianeko 120 gerlari gehiago

QIN SHI HUANG DI Txinako lehen enperadorearen hilobiaren inguruan terrakotazko beste 120 estatua aurkitu dituzte arkeologoek. Dagoneko 8.000 aletik gora atera dituzte hilobi erraldoiaren hobietatik. Baina arkeologoek, eskultura gehiago aurkitzeaz gain, beste erronka bat ere badute.

Eskulturak kolore biziz margotuak zeuden, baina lur azpitik ateratzen dituztenean, oxigenoarekin kontaktuan, pigmentazioa galtzen dute. Horregatik, zientzialariak terrakotazko gerlari ezagunen jatorrizko koloreei eusteko teknikak aztertzen ari dira.



WWW.ARTEHISTORIA.ES

«Batasunak ere urrats gehiago eman nahi du»



Patxi Zabaleta

Leitza, 1947. Abokatua. Aralarreko koordinatzaile nagusia eta NaBaiko parlamentaria. Ezker abertzalearen *Zutik Euskal Herria* adierazpena baikortzat eta beharrezkotzat jotzen du prozesu demokratikoan urratsak emateko. ETaren azken adierazpena hizpide abiatu dugu solasa.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Dani Blanco

ETaren agiria ezagutu zenetik sei egunera, zein da Patxi Zabaletak adierazpenaz egin duen gogoeta?

Aralarrek “eraso ekintza armaturik ez burutzeko erabakia” aintzat hartu behar zela adierazi zuen. Areago, duela “hilabete batzuk” hartutako erabakia dela esan du ETak. Hori ere baikorra da oso. Aitzitik, ETak Madrilgo Gobernuarekin “prozesu demokratikoa abiarazteko beharrezko diren gutxiengo demokratikoetan adosteko prest dagoela” dio eta guk ez dugu hori onartzen. Esaldi horretan, oso garrantzitsua ere dena, ETak atzera egin du, Anoetako Proposamenak zioenaz atzerago joan da. Eta hori oso larria da.

Ordur geroztik hori, aurrerantzean?

Aralarrek su-eten iraunkorra, egiaztagarria eta behin betikoa eskatzen dio ETari, murriztapenik gabe. Hori bakarrik izango litzatekeelako

ETaren bukaera duina, historian zilegitasuna emanen liokeena Euskal Herriaren aurrean. Legalizazioaren, lurraldetasunaren edo amnistia-truke izan gabe. ETak betiko etena emango balu, izugarritzko mugarrira ipiniko luke, eta ondoren alderdi abertzaleek lanean segituko genuke aipatutako aldarrikapenei bide emateko.

Zer ibilbide du egoera berriak? Ba al du? Ez du?

Ibilbide izanen du eragile politikoek bultzatzen badugu. Urrats hau baikorra da eta orain lana egin behar dugu beste urrats batzuk eman daitezen, eta horretarako elkarlanean segitu behar dugu.

“Hemen lehenbiziko aldarrikapena nafarron borondatea onartzea da”

Zerk etorri beharko luke segidan?

Hasteko biktimekiko kitapenak, baina baita ere presoekikoak.

Batasunak nolako ibilbidea egin nahi du, zure ustez, bai zuekin bai EArekin izan dituen harremanen arabera?

Batasunak egin dituen bi agerraldi publikoetan beste urrats batzuk eman behar direla esan du, beraien hizketa kriptikoan. Dudarik gabe, guk askatasun gehiago dugu hitz egiteko gauza hauetaz haiek dutena baino. Ulertu behar dena da haiek ere urrats gehiago eman nahi dutela. *Gara* egunkariko editorial batean ere hori hala agertu zen. Izan ere, orain arteko urratsek ezin alderdi politiko ez dute ase.

EAk eta Ezker Abertzaleak sinatutako akordioa –Aralarrekin– lantzen ari zinetenean heldu zen ETaren agiria. Zer moduz ordura arteko harremanak? Ordura arte EA eta Batasunarekin



hiru bilera egin genituen. Lehenean, *Lortu arte* dokumentua aztertu genuen. Independentisten indar metaketa proposatzen duena. Guk berriz, hauxe diogu: indarrak metatzeko, identitatearen defentsaz batera, independentzia zaleok eduki ideologiko amankomun batzuk ere izan behar ditugu. Alegia, eskuineko eta ezkerreko abertzaleok bildu gaitezke identitatearen defentsan, beste arlo batzuetan arerio politikoa izanik ere. Guk etorkizuneko ezker abertzale zibil eta zabala egitea dugu xede. Beraz, *Lortu arte* dokumentuak ez gaitu asebetetzen. Dokumentua aldatzen al zen galde-tu genien: “Ez” erantzun ziguten, publikoki sinatua delako. Baina jarraitu dugu biltzen, erabakitzeko eskubideari buruz eta bakegintzari buruzko bilkura-eztabaida egiteko. Guk bi dokumentu aurkeztu genizkien. Haiek ez zuten bat egin eta beste bi ekarri zizkiguten: bat, *Indarrak biltzen independentziarako* eta bestea, *Normalkuntzarako gutxieneko oinarriak* dokumentua, biak *Lortu arte* dokumentuan oinarrituak. Berriz ere, independentziaren aldeko guztiok bildu behar dugula diote.

Guk hori ez dela inon gertatzen esan diegu. Katalunian esaterako, badaude eskuinekoak eta ezkerrekoak, eta gauza batzuetan ados daude, erabakitzeko eskubidean edo hezkuntza gaietan, baina ez daude ados hirigintzan edo lan ekonomian eta politika fiskalean. Beraz, ez dugu adostasunik lortu. Guk etorkizuneko ezker abertzaleaz eztabaidatzea proposatu diegu, haiek oraingoz ez dutela hori lehen-tasunezkoztat jotzen esan digute.

Zortzi puntuko agiria delakoa eztabaidatzen jarraitzen duzue halere.

Eta guk puntu horien kontraproposamenak egin ditugu, uneon publiko egin gabe daudenak: zortzi puntu haiek onargarriak dira baina ezin ditugu helburu ideologikoak edo urrutiko helburuak ahaztu. Adibidez: dokumentuaren bosgarren puntuak “hemendik hamar urtera Euskal Presoak euskal kartzeletara ekartzea” dio. Hori ez da nahikoa. Ez du betetzen herri honen beharra. Herri honek presoak euskal kartzeletara ekarri baino, amnistia osoa errebindikatu behar du konponbidearen ildoan. Irlan-

“Batasunekoek ezkerreko elkartasun bat nahi dute Nafarroan, eta *Lortu arte* dokumentuan ezkerre aipatu ere ez dute egiten”.

dan ez da gelditzen preso politikorik, esaterako. Horretan dago eztabaida une honetan, eta eztabaida hori ez da etorkizuneko ezkerreko indar politiko zibil eta zabala sortzeko xedearekin garatzen ari, guk nahi dugunaren kontra. Eta gezurra badirudi, ez da garatzen ari ere behin-behineko epe eta xede elektoralekin, batzuek dioten bezala.

ETAren agiria heldu baino lehenxearago, EA eta Ezker Abertzalearen Indar Politiko Independentisten Arteko Akordio Estrategikoaren Oinarriak txostena filtratu zen. ETAren agiriak eraginen al du bere garapenean?

Ez du eraginen. ETAren agirian dagoen lelo baliotsu bakarra “eraso ekintza armaturik ez burutzeko erabakia” da. Baina badira beste hiru hitz oso adierazgarriak: duela “hila-bete batzuk hartutako” erabakia dela. Horrek esan nahi du, erabakia ez dela *Lortu arte* agiriaren ondorioa. ETAk garbi utzi nahi izan du bere erabakia aspaldikoa dela eta guk mezu hori jaso dugu.

Eta horrek zer garrantzi du?

Bada, batetik, esan zaigu hiru alderdi politikoen artean eztabaidatzen ari ginela ETArri lurreratze toki errazteko. Lizarra-Garaiko garaian bezala, esaterako. Baina ez da horrela. Bestalde, zortzi puntu horiek sakontzen segitu behar dugu. Arestian, bosgarren puntuaren adibidea jarri dizut, baina jar genezake ere lehen puntua. Honela dio: “ETAren su-eten iraunkorra nazioarteko bitartekoek egiaztatua izan behar du”. Guk horrez gainera “behin betikoa eta ordainik gabea izan behar dela” diogu. Alegia, duela zortzi egun baino hobeto gaude, baina ez genuke su-eten hau bere horretan gelditzea nahi.

Aralarrek Lizarra-Garaziko Akordioa du eredu, antza.

Gure ustez eredu nagusia Lizarra-Garaziko Akordioa da aldarrikapen nazionaletan, eta nahitaez, akordioak taktikoa izan behar du.

ETAren agiria ezagutu baino ordu batzuk lehenago filtratu zen Akordio Estrategikoaren Oinarriak txostena.

Bada, ez guk filtratuta. Eta filtrazioa ez da txiripa izan. Filtrazioa zerbaitengatik gertatu zen. *Cui prodest* delakora itzultzen gara berriz ere. Nori interesatu zitzaion argitaratzea argitaratu zitzaion bezala eta momentu horretan?

Aurrerantzean, zer?

Aralarrek norabidea oso garbi du: azkeneko elkarriketan Batasuneko "ezkerreko politikak eta ezkerreko eskakizunak alde batera utzi dituztela" leporatu diegu. Gu ez gaude prest aurrera joateko baldin eta ez badira berreskuratzen aldarrikapen horiek. Aurrerantzean, normalizaziorako xedek dituen behin-behineko dokumentu bat sinatu genezake. Areago, zortzi puntuko dokumentu filtratu hori Aralar, EAJ, Alternatiba eta EBk –eta PSOEko batzuek ere– sina lezakete. ETak su-etena eman duenez gero, puntu horiek lantzen segitu behar dugu. Lehenago horrela uste bage-nuen, bada, aurrerantzean indar gehiagoz. Luzerako eztabaida da.

Nafarroako hauteskundeetarako Aralarren eta EAren aurreakordioa dago. Eta Eak eta Batasunak dekalogo bat aurkeztu dute berriki, Nafarroan aldaketa sorrarazteko xedez. Deigarria da gertatzen ari dena...

Aldaketa lema, NaBairen aldarrikapena izan zen duela lau urte. Dekalogo horretan ordea, lehenengo eta beharrezko aldarrikapena ez dute ipini: nafarren borondatea errespetatzea. Hemen lehenbiziko aldarri-

kapena nafarren borondatea onartzea da. Hori aldarrikatzen dugun unetik, abertzaleok UPNri irabazi diogu apustu ideologikoa, baita PSNko nabarristei ere.

"Eredu nagusia Lizarra-Garaziko Akordioa da aldarrikapen nazionaletan, eta nahitaez, akordioak taktikoa izan behar du"

Eak ez du aldarrikatzen hori?

Gurekin mintzatzean bai.

Batasunarekin mintzatzean... ez?

Dekalogo horretan ez bide du hori aldarrikatu, nik dakidanez. Guk EArekin sinatua daukagu hori, gure oinarritzko asanbladek onartuak dituzte puntu horiek hiru txostentan: oinarri ideologikoa, programa eta egiturak jasotzen dituztenak.

NaBaiko independenteak haserre omen daude, Aralarrek eta Eak datozen urteko hauteskundeetarako NaBai antolatze-ko eraman duzuen prozedura dela-eta.

Batzuk bai, beste batzuk ez. Independente bakoitza independentea da, norbera da, alegia. Eta gurekin independente asko dira. Dagoeneko akordio horren alde dauden 300 sinadura baino gehiago bildu dugu, NaBain lanean ari dira horiek. Kontra agertu direnak ez dira 30 ere. Independenteak asanbladan elkartzen badira, beren ordezkariak izendatzen badituzte, orduan ideologia bat izanen dira. Orduan, beren proposamenak adostuko edo ez ditugu adostuko beraiekin.

Duela lau urteko NaBai errepikatuko da, hau da, EAJ eta Batzarre barne?

EAJ barne, bai. Adostuta dago. Las-ter aurkeztuko da akordioa. Batzerre, ez dakit. Batzarrek inkesta bat egin behar du bere barruan, ea NEBarekin joan edo NaBairekin etorri nahi duen. Nahi badute etorri, gu lantzen ari garen egituran moldatu beharko dute, daukaten espazio politikoa eta ordezkapen instituzionalaren arabera.

Ezker Abertzaleak NaBain lekua izan lezake? EArekin ari ote dira horretaz?

Bi erantzun emanen dizkizut: Batasunak legala izatea lortzen badu, Batasuna bere aldetik joanda eta NaBai bere aldetik joanda, ordezkari gehiago aterako dugu. NaBaik, inkestek diotenez, 12-14 eserleku atera ditzake, eta Batasunak 2-4, ziurtasun osoz. Elkarrekin joanez gero, Batasunak ekarriko lituzkeen hiru horiek NaBaiko beste hiru uxatuko lituzkete. Beraz, elektoralki elkar onartuz, askoz onura gehiago ekarriko luke bakoitza bere aldetik joateak. Jakina, hori da posible soilik, Batasuna legala baldin bada. Eta NaBaik dio Batasunak bere atea irekiak dituela, baldin eta sinatzen baldin baditu NaBairen oinarri ideologikoa. Haiek diote, ez dutela NaBain sartu nahi, ezkerreko abertzaleon elkartasuna osatu baizik. EAJ NaBain dagoelako diote hori. Baina, hara, Batasunekoek ezkerreko elkartasun bat nahi dute Nafarroan, eta *Lortu arte* dokumentuan ezkerre aipatu ere ez dute egiten. ■

argia.com Elkarriketaren segidan, Nafarroako politika eta Kataluniako norabide politikoa hizpide.



**ZIENTZIA
IRAKURLE
ORORENTZAT**

Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Orentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma.

Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.













Corbacho lan ministroa, Zapatero Espainiako presidentea, eta Díaz Ferrán CEOE-ko presidentea.

WWW.HERALDO.ES

Espainiako lan erreforma

Lan merkatu merkea, ezegonkorra eta malgua

PSOEn botoei eta EAJren zein CiUren abstentzioari esker Espainiako Kongresuak onartu duen lan erreformak lan merkatuan oinarritzko zenbait aldaketa ekarriko ditu. Sindikatuen arabera, langileen eskubideak urratzen ditu, kaleratzea merkatzen duelako, lan egonkortasunik eza areagotzen duelako eta negoziazio kolektiboa arriskuan jartzen duelako.

DANIEL UDALAITZ

ESPAINIAKO GOBERNUAK bultzatutako lan erreforma irailaren 9an berretsi zuen Espainiako Kongresuak, soilik PSOEn aldeko 168 botorekin eta 173 abstentziorekin —tartean EAJ eta CiUrenak—. ERC-IU-ICV, BNG eta Na-Bai-ren zortzi parlamentariak kontra bozkatu zuten.

Langileek eta sindikatuek gaitziturik hartu dute erreforma eta enpresariak, aldiz, ondo hartu dute —aldaketa sakonagoak nahi dituzten arren—. Sindikatuek kaleratzea merkatzea eta lanaren egonkortasunik eza areagotzea salatu dute. Enpre-

sarioek, neurri zorrotzagoak nahi bazituzten ere, badakite neurri berriok ziurtasun eta segurantza handiagoa ematen dietela.

Lan erreformaren funtsezko beste alderdietako bat negoziazio kolektiboarena da. Erreforma indarrean jarri eta sei hilabeteko epea izango dute patronalak eta sindikatuek gai horri buruzko akordio batera iristeko. Tarte horretan akordiorik lortu ezean, gobernuak bere erreforma ezarri beharko luke.

Langileen eta abertzaleen aurka-ko erreforma honek dagoeneko bi greba orokor eragin ditu Hego Eus-

kal Herrian, iragan maiatzean eta uztailean sindikatu abertzaleek deitu zituztenak. Sindikatu abertzaleen arabera, lan erreforma hau “trantsizio hasieratik hona izandako lan eskubideen urraketarik larriena” da. Irailaren 29an CCOO eta UGT sindikatuek beste greba orokor bat deitu dute Espainiako Estatu osoan.

Galerak aurreikustea nahikoa da kaleratzeko

Onartutako lan erreformak jasotzen duen gairik polemikoena eta onarpen gutxien duena kaleratze objektiboaren arrazoiak dira. Erre-

Hitzarmen probintzial eta autonomikoak arriskuan

Patronalaren eta sindikatuen arteko hitzarmenen negoziazioan giltzarria den negoziazio kolektiboa ere aldatuko dute. Patronalak eta sindikatuek sei hilabete dituzte akordioa lortzen saiatzeko. Lortu ezean, Gobernuak heldu beharko dio gaiari eta dekretu bidez jarriko du indarrean, lan erreformarekin egin duen moduan.

Beste erreforma honek, besteak beste, hitzarmen probintzial eta autonomikoentzat kaltegarriak diren

neurriak jaso litzake. Testuinguru horretan, sortuko litzatekeen egoera are urrunago legoke sindikatu abertzaleek aldarrikatzen duten euskal lan harreman esparrutik. Horregatik besteak beste, sindikatu abertzaleek EAJk lan erreformaren izapideetan izandako jarrera salatuko dute. Gogoan izan EAJren eta CiUren abstentzioari esker onartu zela erreforma Senatuan, eta bi hilabete geroago Kongresuak berretsi egin du lege berria.

formaren bidez, enpresarioentzat errazagoa eta merkeagoa da kalera-tzea. Onartutako testuaren arabera, “benetako edo aurreikusitako galarak, edo diru sarrera mailaren murrizte iraunkorra” izanez gero, enpresek bidezko arrazoi ekonomikoengatik langileak kaleratzeko aukera izango dute. Gobernuaren jatorrizko dekretuak “egoera ekonomiko negatiboa” zuen hizpide. EAJrekin burututako zuzenketaren ondoren dekretua zehaztu izanak epaileei bidezko kaleratzeak onartzeko atea zabaltzen die. Bidezko kaleratzeak askoz merkeagoak dira (20 egun lan egindako urteko, gehienez 12 hilabete) kaleratze bidegabeak baino (45 egun eta 42 hilabete gehienez, edo 33 egun eta 24 hilabete gehienez, kontratu mugabe motaren arabera).

EAJk aurkeztutako eta PSOEk onartutako 185. zuzenketari dagokion testuak hauxe dio literalki: “Kaleratzeko arrazoi ekonomikoak daudela ulertzen da, enpresaren emaitzek egoera ekonomikoa negatiboa adierazten dutenean, hala nola enpresaren bideragarritasuna eta enplegu bolumenari eusteko ahalmena arriskuan jar dezaketen galarak daudenean edo aurreikusten direnean nahiz diru sarrera mailaren murrizte iraunkorra gertatzen denean. Horretarako, enpresak aipatutako emaitzak egiaztatu beharko ditu eta emaitza horien

ondorioz, merkatuen duen toki lehiakorari eusteko edo mesede egiteko kaleratzea arrazoizkoa dela justifikatu beharko du”.

Absentismoa bidezko kaleratzeak egiteko arrazoiak izan daiteke

Erreforma guztietan, patronalaren eta zenbait alderdiren, esaterako, CiUren kezka nagusietakoa lan absentismoa izan da, azken urteetan behera egin duen arren. Erreforma honetan ere gai hau jorratu dute. Hala, erreformak Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalako mediku ikuskatzaileei urtebetez azpiko ezgaitasunetan alta emateko ahalmen handiagoa ematen die. Horrez gain, enpresa batek izan ditzakeen behin behineko bajen batez beste koaren muga %5etik %2,5era jaitsi da, %20tik gorako absentismoa duten langileak bidezko moduan kaleratu ahal izateko, bajak justifikatuta egon arren.

Barne malgutasuna

Patronalaren beste eztabaidagai nagusietako bat da malgutasuna. CiUk interes handia du gai honetan eta, ordutegia, lanpostuak edo txan-

EAJren zuzenketaren ondoren, epaileei bidezko kaleratzeak onartzeko atea zabaltzen die dekretuak

dak aldatzerakoan langileen eta enpresarioen arteko akordiorik ez balego, azken horien erabakia lehenestea proposatu zuen. Enplegatuari epaileengana jotzeko aukera gertuko litzaioke baina horrek ez zuen neurri patronala geldiaraziko. Azkenean, PSOEn irizpidea nagusitu zen. Hala ere, bi parteek arbitro batengana jo ahal izango dute auzitegiara jo baino lehen.

Kaleratzearen diru laguntza eta langabezia sariak

Erreforma indarrean jarri ondoren sinatutako eta gutxienez urtebetez iraupena izandako kontratua etete-ko arrazoi objektiboak argudiatzen dituzten enpresarioek FOGASA Soldatak Bermatzeko Funtsaren diru-laguntza jasoko du, lan egindako urteko zortzi egun dagokiona. Gainerakoa, kaleratzea bidezkoa edo bidegabea izan, enpresarioak ordaindu beharko du. Langabezia sariei dagokienez, enpleguak gora egin bezain pronto, langabezia sari eta diru-laguntza sistema erreformatzeko konpromisoa hartu du Gobernuak, langabetuak lana bilatzerakoan eta jardueretan –prestakuntza ikastaroetan eta abarretan– gehiago inplika daitezkeen.

Bestalde, Kontratazio iraunkorra bultzatzeko, gobernuak kaleratzeagatik 33 eguneko indemnizazioa jasotzen duen kontratua zabaltzen nahi du. ■

Babeslea: Gaindegia



Euskal Herria, garapen jasangarriko unitatea
Euskal Herria Europako Batasuneko hego-mendebaldeko nazioa

Eragile ekonomiko eta sozialen sarea
Zatoz zu ere, EGIN ZAITEZ BAZKIDE. www.gaindegia.org

Gaindegia, Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia
gaindegia@gaindegia.org • 943 304 365



Euskal Herria ekonomia eta gizarte garapenerako behategia
Observatoire pour le développement économique et social de Euskal Herria
Observatoire pour le développement économique et social du Pays Basque

Gaztezulok 10 urte

Ilusio handiz, eta kezkatuta

Urte bukaera beroa izango du Gaztezulo aldizkariko lantaldeak. Hamargarren urteurrena ospatzeko azken ukituak ematen ari dira, eta era berean, Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzen zain daude, Gipuzkoako Foru Aldundiak laguntza %80 murriztu eta gero.

ONINTZA IRURETA AZKUNE

Argazkia: Dani Blanco

URTEURRENA har dezakezu munduko ilusio guztiarekin, eta pentsatu hau egingo dugula eta bestea, baina ez dago nondik atera dirua”. Igone Fernandez erredakzio burua Gipuzkoako Foru Aldundiak aurten diru-laguntzetan egindako murrizketaz ari da. Iaz 50.000 euro inguru jaso zituen Euskal Herri osoan zabalitzen den *Gaztezulo* aldizkariak eta aurten udaberrian jakin dute 9.000 euro pasatxo baino ez dutela izango, %80ko murrizketa. Raul Perez zuzendariak aitortu digu norabidea galduta geratu zirela diru-laguntzen albistea jakinda, urteurrena gainean zutela. Urteurrena ospatu ala ez, zalantzan jarri zuten, eta azkenean, aurrera egitea erabaki zuten, “festa egingo dugu, eta gero gerokoak”. Urte amaiera berezia izango da *Gaztezuloko* lantaldearentzat, bate-tik, ospakizunarekin bete-betean arituko direlako, eta bestetik, Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzen berri jakin zain daudelako. Nahiz eta Gipuzkoako Foru Aldundiak ipurdiko handia eman, Jaurlaritzakoak jakin arte inolako neurri edo aldaketarik ez dutela egingo esan digute Fernandez erredakzio buruak eta Perez zuzendariak.

Kirola, atal berria

Hilabetekaria argitaratzeaz ardura-tzen den lantaldea murrizta da: Ane Irazu da gerentea, Raul Perez zuzendaria, Igone Fernandez erredakzio



Gaztezuloko lantaldea: Agurtzane Gomez publizitate arduraduna, Inge Mendioroz diseinatzailea, Raul Perez zuzendaria, Igone Fernandez erredakzio burua eta Ane Irazu gerentea.

burua, Agurtzane Gomez publizitate arduraduna eta Inge Mendioroz diseinatzailea. Kolaboratzaile sarea ordea, ezinbesteko ardatza da aldizkarian, espezializazioa jotzen baitute ahal den neurrian.

Hala, 16 urtetik gorako gazteen-tzat egindako agerkaria beraien gogoko gaiak jorratzen saiatzen da.

Alberto Irazu *Gaztezuloko* zuzendari ohiak, Udaletako Euskara-Zerbitzuen Topaketetan, udaberrian, kontatu zuen nola aldizkaria sortzerakoan gazteei beraiei galdetu zieten zer nahi zuten irakurri. Handik atera ziren “hamar mandamenduak”, alegia, sexua, literatura, zinea, Internet, teknologia berriak,

Ospakizun jaia Bilboko Kafe Antzokian



Hamargarren urteurrena ospatzeko *Gaztezulok* 2010eko hasieratik hainbat ekimen abian ditu. Dena dela, urria hilabete trinkoena izango da. Ondoko lerroetan duzue egitasmoen berri:

✓ **Bideo lehiaketa:** Lehenengo aldiz antolatu dute, eta aldizkariak bezala, *Hi eta hire munduak* du leloa. Gaia oso irekia da, norberak kontu

dezala bere mundua. Baldintza bakarra dago, euskaraz izan daitezela lanak. Azaroaren bukaeran epaimahaiak (Jon Garaño, Jose Mari Goenaga, Koldo Almandoz, Egoitz Lasa eta Aitziber Garmendia) bideo lanen balorazioa egingo du. Sariak Euskararen Nazioarteko Eguna-
ren inguruan banatuko dira. Sari nagusia 1.500 eurokoa izango da, eta horrez gain, Donostiako Euskararen Udal Patronatuak ikus-entzunezkoetan gastatzeko 1.000 euroko bonoa emango dio Donostian bizi den edo bertan ikasten duen gazteari. Bideoak Euskaltube edo Youtuben zintzilikatu eta lotura *Gaztezulori* bidali

behar zaio. *Gaztezulok* jaso ahala zintzilikatuko ditu bere webgunean.

✓ **Festa:** Bilboko Kafe Antzokian, urriaren 15ean izango da, Esne Beltza musika taldea lagun. Sarrera doan da eta oparitxo sorpresak izango dira.

✓ **Gaztezulo Saria:** Urtea bukatu aurretik, lehen aldiz emango dute sari hori. Urte hasieratik irakurleek galdera bati erantzun diote, alegia, azken hamar urteotan egindakoagatik zein euskal gazteri emango lioketen *Gaztezulo Saria*. Iraileko *Gaztezuloren* arabera Maialen Lujanbio bertsolaria doa sailkapenean aurrena eta bigarren dira Gorka Urbizu musikaria eta Koikili Lertxundi futbolaria.

✓ **Urriko zenbaki berezia:** Hamaika idazlek eta hainbat ilustratzailek azken hamar urteotako atzera begirakoa egin dute. Bebe abeslaria eta Marta Etura aktorea elkarriketatu dituzte. Argazkien txokoa, profesionalen lanak beharrean irakurleek bidalitakoak argitaratuko dituzte. Zenbaki honetan atal berria estreinatuko dute, irakurleek kirol gehiago eskatu baitute. Beraz, kirolak atal berezia izango du hemendik aurrera eta urrikoan mendi lasterketetan aritzen den Kilian Jornet katalan gaztea elkarriketatu dute.

telebista, albiste bitxiak, gaua, nazioartea eta umorea. Orduz geroztik aldizkariak edukia itxuraldatu edo berregituratu dituzte, baina mamia ia ez da aldatu. Berrikuntzen artean dira, adibidez, argazkilariek ateratako argazkien txokoa eta bertso satanikoak. Urriko zenbakian berriz, gazteen azken nahiei kasu eginez, kirol atala abiatuko dute.

Igone Fernandezek adierazi digu

Gaztezulo plaza bat dela, gazteek zer egiten duten jasatzeko eta gazteek beraiek egiten dutena azaltzeko. Aurpegi ezagunak asko ageri dira, baina honetan edo hartan hasiberriak direnek ere tokia dute.

Papereko *Gaztezuloz* aritu gara orain arte, eta nola ez, webgunea (www.gaztezulo.com) ere badute. Egunero berritzen dituzte hainbat eduki, eta azkenaldian, poliki-poliki, bideoak hasi dira zintzilikatzen.

Bereziki gustura daude facebookaren martxarekin. Fernandezek ustez, “kasu askotan hain zaila den feedback hori lortzeko aukera ematen dizu, zuk sartu, beraiek erantzun... webean zailagoa da”. Kontsultak beraien indarguneetako bat dira eta Perez zuzendariak gogorazti digu, esate baterako, sexu kontsultek harrera ona dutela, hiru urte daramatzatela kontsultekin eta aitzindariak izan zirela. ■

tradebi

EB Traducciones Itzulpenak, S. L.

www.tradebi.com

Suediera ingelesaren beldur

KARRAJUA WEBGUNEAK Linguamón-era bideratu gaitu, eta han aurkitu dugu Finlandiako Tampere Unibertsitateko Sirkku Latomaa irakasleari egindako elkarrizketa. Motza da kontakizuna, baina interesgarria. Latomaak dio finlandiera ez dagoela arriskuan, baina suediera larriago ikusten du —biak dira hizkuntza ofizial—. Gazteak Interneten eta hedabideetan gero eta ingeles gehiago ari omen dira kontsumitzen eta dagoeneko elkarren artean ingelesez ere idazten omen dute. Hango hizkuntzalari batzuk kezkatuta daude eta ingelesaren inguruko neurriak hartu beharra azpimarratu dute. Irakaskuntza-

TALAIAN

Gastu militarra eta doikuntzak

Espainia eta Frantziako Estatuak, hala nola hainbat euskal sukurtsalek, urtebete baino gehiago daramate gure defizit publikoa murrizteko hainbat doikuntza neurri aurrera eramaten. 2011ko aurrekontuak mahai gainean daudenez, neurriak estutu egingo dituzte data horretatik aurrera. Orain arte, neurri horiek langile eta herri sektoreei eragin die gehien: soldata eta pentsioak izoztea, lan erreforma, pentsio erreforma, eta abar. Baina bi arlo oso garrantzitsu ez dira ukitu ere egin: bankari eta aberatsei ezarri beharreko zergak, eta gastu militarren murrizketa —hobe ezabaketa izango balitz—.

Munduko gastu militarra, ARGIAK duela hilabete batzuk aurreratu bezala, %5,9 handitu zen 2009 urtean, eta aurrekaririk ez duen bilioi bat dolar baino gehiagoko (1.531.000 milioi) zifrara iritsi da, horrek esan nahi du egunean 4.191 milioi gastatzen direla arlo militarrean. Frantziako Estatuak 47.050 milioi euro gastatu zituen eta Espainiakoak 18.926 milioi; beraz, egunean 120 eta 50 milioi euro gastatu zituzten hurrenez hurren. Justizia, berdintasuna eta elkartasuna bezalako balore demokratikoak merkatuen lege soilekin ordezkatu dituen finantza ereduaren fruitu da jasaten ari garen krisia. Ondorioak bistan dira: ehunka milioi lagun gosez dira —70.000 baino gehiago hiltzen dira egunean—, eta bitartean, munduan egunero 4.000 milioi dolar inbertitzen dira gastu militarrean, eta aldi berean, langileen eta gizartearen kontrako neurriak gailentzen dira.

Defizita murrizteko paradisu fiskalak desagertu beharko lirarteke, nazioarteko trafiko ilegala erregulatu, aberastasun handiei eta bankuei tasa handiago ezarri eta gastu militarretan murrizketa handia exigitu. Ezin da utzi garapenean, osasunean, hezkuntzan eta menpekotasunean inbertsioak murrizten, edota soldata eta pentsioak izozten... Eta ezin da utzi banka eta aberatsak ukiezinak izaten, edota horrelako gastu militarrek egoten.

Juan Mari Arregi

ko datu bat ere ematen du elkarrizketan: 150 hizkuntzatik gora hitz egiten dira Finlandian eta horietatik 50 ikastetxeetan irakasten dira. Nahi izanez gero, etorkinek edo etorkinen seme-alabek, ama hizkuntza ikas dezakete astean bi orduz. Latomaaren ustez, kontua ez da haiek gurera asimilatzea, baizik eta haien ama hizkuntzak bizitoki duten herrialdean ez galtzea.

Hizkuntza zailaren mitoaz ere badakite zerbait finlandiarrek. Irakaslearen iritziz, finlandiar batzuek ere zailtzat dute ama hizkuntza. Hitz gutxitan deuseztu du mitoa: Helsinki eta Londresen artean Londres eta Helsinkiren artean dagoen distantzia bera dago. Latomaa irakaslearenaz gain, beste hainbat hizkuntza adituren elkarrizketak daude bideoetan, Linguamónen webgunean.

Euskal Kulturgintzaren Transmisioa Lujanbioren begietatik

2007-2008 IKASTURTEAN ikasle izan zen Maialen Lujanbio bertsolaria HUHEZI Fakultateak antolatutako graduondokoan. Orain, *Hau koaderno bat zen. Hau koaderno baren berrinterpretazioa* izenburupean han jasotakoak eta haiei buruz egindako hausnarketak bildu ditu.

Bestalde, graduondokoaren hirugarren edizioa urriaren 13an hasiko da Eskoriatzako fakultatean. Besteak beste ondokoak izango dira hizlari: Xabier Montoia, Niko Etxart, Andoni Egaña, Ramon Saizarbitoria, Kirmen Uribe, Aizpea Goenaga eta JosAnton Artze.

6.000 esaera zahar Gotzon Garateren omenez

URRIAREN 8AN izango da. Garate euskaltzale elgoibartarrak idatzitako *Atsotitzak* esaera zaharren bildumatik 6.000 irakurriko dituzte Elgoibarko Udaleko pleno aretoan, hasi goizeko bederatzieta eta zazpiak arte.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php



Altzusta 38, 48144 ZEANURI
+34 946 317 888 | ellauri.com

Natura sentitu

“Eta hala ere, mugitzen da”

KATUA ETA SAGUAREN jolasaren antza hartzen ari da ETArekin komunikatu eta ezker abertzalearen berehalako balorazioa. Eta abestian ez bezala, oraingoan bada su-etenik: “baldintzarik gabekoa, iraunkorra eta atzeraezina”. Irailaren 5ean, ezker abertzalea agudo arduratu zen ETArekin komunikatua bere testuinguruan jartzen eta orain ere berdintsu.

Bruselako sinatzaileei zuzenduta, ETAk esan du prest dagoela “konponbide demokratikoak behar dituen urratsak elkarrekin aztertzeko, ETAk hartu beharreko konpromisoak barne”. Ez gehiago, ez gutxiago. Baina Bilbon prentsurrean egindako balorazioan ezker abertzaleak argi ikusi du “euskal eragileak bake prozesuan eta prozesu demokratiko atzeraezinean murgilduak daudela”. Bakoitzaren izaera kontuan hartuta, beharbada fotogramaren ordena-kontua besterik ez da. Baina badira arrazoi sakonak pentsatzeko kuku hauek ezker abertzale barruko dialektikaren ondorio direla. Edozein modutan, aurrez iragarritako uretan doa ontzia, Bruselako Adierazpenaren kaira bidean. Ezin esan zenbat sekuentzian ikusiko dugun sarre-ratze hori, baina helmuga ezin da besterik izan. Edo imaginatzen du norbaitek ETA Desmond Tutu, Frederik W. de Klerck, Mary Robinson eta

John Hume-ri –hauekin biltzea eskatu du ETAk *El Pais*-en arabera– su-etenaren ezezkoarekin erantzuten? Nekez. Eta behin hori gertatuta, Irlandan bezala, hurrengo urratsak alde politikoari dagozkio, Batasunari. Eta ondoren ETAr armekin keinuren bat egitea eta gero...

Rufi Etxeberria Batasuneko buruzagiak ere argi hitz egin du *Irish Times* egunkarian eskainitako elkarrizketan. Ezker abertzaleak etorkizuna indarkeria ekintza barik aurreikusten duela azpimarratu du eta ekintza biolentorik izatekotan, “hauek burutzen dituztenak gure kideek hartutako estrategiatik at eta aurka kokatuko dira”. Lehen ere esanak zituen gisakoak, baina Etxeberria da halakoak publikoki horren tinko esaten dituen bakarretakoa. Autoritate kontua.

EAJ ERE ESNATZEN hasia da, nekez ulertzen baitzen bere burua PPren eta PSEren diskurtso berean gordetzea. Eta hori ona da prozesu honentzat eta euskal gizartearentzat. Egibar, Olano eta abarren presio kontuak?

Edo pentsa liteke baita ere EAJ-ren ohiko bikoiztasuna –PSEa zein soberanismoa begiratzearena– ohi bezain eraginkorra dela? Joan den

igandean izan zen horretarako parada ona, oraingoan ezker abertzalearen borondatea neurtzerako orduan. Markel Olanok *El Diario Vasco*-n zioenez, “gure alderdiak ezker abertzalearekin izandako kontaktuetan oso argi ikusi dugu honek posizio tinko eta argia duela”. EBBko lehendakari Iñigo Urkulluk egun berean *El Correo*-ri esandakoekin beroarenak kendu zizkion Olanoren iritzari: “Pentsatu nahi dut ezker abertzalean badela ikusten duenik beharrezkoa dela bide politikoen apustua egitea”.

ESTATUA eta bere ordezkariak ere jarraitzen dute mugitzen, baina kontrako norabidean, ETAk armak noiz eta zein kasernatan entregatzen dituen iragarri arte ez baitago ezer egiterik. Kontrainsurgentziaren manualari tiraka, oztopoa, zango-traba eta ziri-sartzea, hori da oraingoz PSE erakusten ari den jarrera. PPri agian bai, baina kartajoko hori ezin zaio errentagarri atera duela hiru urte Loiolako elkarrizketan murgildu zen alderdiari. Baina jakina, dena uler liteke hobeto gatazkaren artean duinari baino, PSE PPekin batera udal eta foru hauteskundeetan egin dezakeenari begira badago.

gunea

zozketak 

Aste honetako zozketan parte hartu ahal izateko sartu www.argia.com/gunea helbidean edo jar zaitez gurekin harremanetan
 ☎ 943 367 285 • gunea@argia.com

 **argia**

Matt Simmons, ‘Peak Oil’aren propagandista

Abuztuaren 8an bainuontzian itota azaldu zen Matthew Simmons, petrolio aholkulari aberats eta Peak Oil teoriaren propagandista famatua. Konspirazio handien salatzaileari bukaera susmagarria oparitu dio heriotzak. Azken urteetako iragarpenetan huts eginagatik, denek aitortu diote petrolio ulertzeko ideietan aitzindari izan zela.

PETROLIOA 2010EAN 200 DOLAR kostatu baietz, 2.500na dolar jokatu zizkien Matthew Simmonsek 2005ean bi kazetariri. Orduan 65 dolarretan zegoen. Aurtengoa bukatzeko hiru hilabete falta arren, galdutzat jo beharko zituen Simmonsek, bizi balitz. Adituek esango dute petrolioaren luzerako garestitzeari buruz arrazoia zuela oro har, baina gutxietsi egin zituela ekonomiaren gorabeherak... 2008ko finantza hondamendia sartu zen tartean.

Hanka sartze hori eta besteak gogoratu dituzte prentsa amerikarrek hil-oharrek Simmons-en heriotzaren berri eman dutenean. Baina horiekin batera, denek aitortu dute munduko iritzi emaile askori ikuspegi aldarazi zela petrolioaz.

Abu Dhabi-ko *The National* egunkarian Tamsin Carlislek, honela idatzi du: “Matthew Simmons, azken denboretan zenbait konspirazio teoria zabaltzen zuela, halako gehiagoren gai bihurtu da hil ostean. Haren karrera ikusgarri eta batzuetan harri-garriaren azken kapituluaren, energi inbertsioetako bankari eta idazlea, gero energia berriztagarrien zale suhar bihurtua, igandean hil da. Mainero bere bainuontzian, modu ez erabat argian: North Haven-eko mediku forentseak ez du garbi adierazi bihotzkeak jotzearen ondorioz ito den ala itotzerakoan jasan duen

atakea. Holakoetan gertatzen den legez, AEBetako txutxumutxuen errota berehala jarri da martxan eta konspirazio teorien aldeko zenbait hasi da adierazten Simmonsena ez dela heriotza berezkoa izan”.

Hildakoa, izan ere, zinez polemikoa zen, nagusiki 2005ean plazaratu zuenetik *Twilight in the Desert: The Coming Saudi Oil Shock and the World Economy* (Ilunabarra basamortuan. Saudi Arabian gertatu behar duen petrolio *shocka* eta munduko ekonomia). Liburuak sekulako oihartzuna eragin zuen.

Matt Simmons ordurako aholkulari ezaguna zen petrolio konpainien artean, 1973ko krisian egindako apustuekin bai bera eta bai bere gomendioak jarraitu zituzten energia konpainiak aberastu egin zirelako. George Bush presidentearen aholkulari ere aritua zen. Horregatik 2005an bere data base pribatua erabiliz Simmonsek liburuan azaldu zuenean Saudi Arabiako petrolio errezerba ofizialak puztuta zeudela, hango petrolio ustiaketak goia jo zuela eta laster gainbehera abiatuko zela... txinpartak ateratu zituen.

Sortzez bezala heziketaz, oso gizon kontserbadorea zen. Utahko familia mormoi batean jaioa, gasetatik murgildu zen negozioetan. Jauzi handiena 1974an eman zuen. 1973ko urrian herrialde arabiarrek

Minyanville guneak eskaintzen duen irudian, Matthew Simmons. Sortu zen Utah utzi eta Texasera joanda, egindako lanengatik petrolio konpainien artean itzal handiko gizona izaki, *Ilunabarra basamortuan* liburuarekin ordura arte enpresaren artean segurutzat jotako ideia askok uzkaile zituen. Lurpetik petrolio erraz eta merke eskuratu zireneko garaia bukatzen ari dela erakutsi zuen. 2005ean *Peak Oil* kontzeptua kasik bitxikeria zen eta gaur, aldiz, erreferentzia nagusietako bat. Estrategiak eta prospektiba egiten dituztenek kontutan hartzen duten datua da. 2007an Simmonsek, petrolio konpainien aholkularitza utzi eta mundu osoan ematen zituen hitzaldiez gain itsasoko energia nola baliatu ikertzeko fundazioa osatu zuen, Ocean Energy Research. Ziur zegoen iraganeko energiak agortzeaz daudenez etorkizuneko etan saiatu beharra dagoela.

enbargoa ezarri zieten petrolio esportazioei, Mendebaldeko potentziek Israeli *Yom Kippurreko Gerra* deituan laguntza eman ziotelako. Munduko hiri aberatsetako gasolindegietan auto ilara luzeak ikusi ziren erregai urrituaren eske, petrolioaren prezioa izugarri garestitu zen.

Simmonsek garai hartan sortu zuen Simmons and Company International, aholkularitzan berezitu zena. Urre beltzaren inguruko geroztikako gora behera guztiez inork gutxi bezalako ezaugarria metatu zuen. Enpresa handien aholkularitzan aberastu ere bai.

Petrolio 200 dolarretan noizko?

Matthew Simmonsi bigarren gaztaroa *Twilight in the Desert* liburuak ekarri zion. Petrolio merkearen aroa bukatzeaz zela iragarritz eta aldi berean jende artean ideiak azaltzeko zeukan grazia oso berezia baliatuz, komunikabideetan lekutxo eskuratu zuen.

“Bitxia da —esaten zuen— munduko industriarik handienaren jabe gara eta hala ere sekulako arazo baten aurrean gaudela ohartu diren gutxietakoa naiz. Denbora librean aurkitu dut dena, gainera. Ez al da tragikoa eta zentzugabea?”.

Kontserbadore honi, bestalde, lagun berriek deitzen zioten gero eta gehiago hitzaldietara, enjergien



urritzeaz eta *Peak Oil* teoriak kezkatutako jendeek.

Laster Simmons and Company utzi eta Ocean Energy Institute sortu zuen. Itsaso zabaleko haize errota, mareak eragindako turbinak, korronteen energia erabiltzea... munduaren energia goseak horietatik ase zitezkeela ziur zegoen. “Ozeanoak dira energiaren azken frontera”, esan zuen Simmons. Hildakoan Ellen alargunak eta bost alabek hileta oharrean eskatu diete lagunei ez bidaltzeko lorerik, hobe dutela hark sortutako Ocean Energy Institute fundazioari dirua oparitzea.

Baina azken denboretan lagun berrien artean ere gogaikarri bihurtua zen gizona. *Peak Oil* mugimendukoek beti aitortu diote Simmonsi

heldu den energia krisia ezagutarazteko egin duen lana, baina azken urteotako hanka sartzeekin ere gero eta haserreago zeuden.

Hil baino bi aste lehenago gaiotan gaztelaniazko erreferentzia den *Crisis Energética* gunean idatzi zuten: “Dudarik gabe Matt Simmons asko lagundu du petrolioaren gailurra ezagutarazten (...) baina azken aldian nire buruari galdetzen diot ea benetan lagungarri ote den problemaz jendea ohartarazteko”.

Askoz zorrotzago titulatu zuen Robert Rapier ingeniariak energiari buruzko *Consumer Energy Report* blogean: *Is Matt Simmons Credible?* Rapierrak lehenbiziko eztabaida izan zuen Simmonsekin ASPOren 2008ko bileran –sigla horiek biltzen dituzten

*Peak Oil*aren inguruko talde eta erakundeak—. Simmons hitzaldian esan zuen Ike hurakanaren ondoren gasolina faltako zela AEBetan, herrialdeko ekonomia kolapsatzera ino. Rapierrak erantzun omen zion datu okerrak baliatu zituela, ez zituela ondo analizatu biltegietako informazioak. Denborak erakutsi zuen Rapierrak arrazoi zuela.

Askoz petto nabarmenagoa egin zuen uda honetan Simmons, Mexikoko Golkoan lehertu zen Macondo edo Deepwater Horizon plataforma zela eta. Ezingo zela petrolio isuria kontrolatu, BP konpainia hilabeteren buruan kiebran egongo zela, itogina ixteko modu bakarra bomba atomiko txiki bat lehertaraztea zela, golko azalaren %40 kutsatuta zegoela, kostako estatuak ebakatu beharra zegoela, eta abar. Geroztik bete ez direnak.

Zergatik horrelako irristadak? Hona Rapierraren iritzia: “Tamalez, uste dut bere sinesgarritasuna sunsitzeko bidean dagoela. Ez dut uste historiak samurtasunez epaituko duenik aipatu gertakizunak aztertzerakoan. Penagarria da, zeren eta aldarri sentsazionalista horiez landa, oraindik sinesten dut zuzen asmatu duela *peak oil*aren zertzelada nagusiez, epe luzeko prezioez eta erreakzionatu beharraz esan dituenetan”.

Kontserbadore bitxi honetaz lagun batek esan du mundua aldatzeko baino mundutarrak iratzartzeko egiten zuela borroka. Matt Simmons argi zeukan: “Ordezkorik gabeko iturri gutxien zerrendan ura eta petrolio daude buru. Tamalez XX. mendean alferrik galdu ditugu, prezio merkeek itsututa” ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Garantia.

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu, produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com · www.zinkunegioptika.com



Mikel Irizar

Aurrezki kutxak

Z

ilegi bekit gaur ogibidea dudaneke esparruaz aritzea. Ohi bezala, nire golkotik eta ez inoren ordezkari.

FINANTZA KRISIA. Gugandik kanpo hasi zen bere sorburu propioz, baina gurea iristean hemengo ajeak bistaratu zituen. Euskal kutxen lege-esparru den Espainian nabarmen agertu dira aurrezki kutxa askotan egindako desmasiak, agente organuetara txandaka iritsitako politikarien eskutik, zenbaiten esanetan.

BANKUEN GOSEA. Ezin ahaztu, ordea, banku espainiarren gosea kutxen negozioa ahortzeko. Pertsonetikiko hurbiltasunak eta gizarteari itzultzen dioten dibidenduak merkatuaren erdi pasea emana baitie kutxei, bankuen kaltetan. Eta hauek, indartsu izaki, arma guztiekin eta inteligentziaz egin dute eraso. Kutxen despolitizazioaz hitz egin dute, pribatizazioa saltzen zailago delako, eta gupidagabe erabili dute Espainiako Banku Zentrala kutxen estuasunak areagotzeko, lege betebeharrak berrirakin.

JAZARPENA. Kutxek ez dute izan, orain arte, kapitala lortzeko beste modurik aurrezteko baino. Horretara bideratu da historikoki gizarte ekintzan gastatzen ez zen mozkinen zatia. Baina larritasunean Espainiako Bankua bakarrik izan dute mailegu-emaile. Hori bai, epeaz eta interesez ordaindu ezingo duten mailegua eman die delako FROB fondoak, eta una iristen denean hori izango dira beste bankuak harrapakin jazarria irensteko.

EREDUA KOLOKAN. Kutxen lege berriak bide ugari irekitzen die merkatura jo dezaten diru bila. Baita izaera juridiko asko aukeran jarri ere, egokiena har dezaten. Baina armaduraren zirrikitu bakoitzak egiten du gorputza zaurgarri eta kutxa gehienak harraparien lurretan sartu dira halabeharrez.

Hamar urte barru kutxen gaurko eredu iragane bitxikeria izan daiteke. Baina gure kutxak ereduari eusteko moduan daude.



DANI BLANCO

EUSKAL KUTXAK. Kutxa nafarrak ere ausarkeriaz jokatu du azken urteotan, eta estualdia iristean berak ere hartu behar izan du besteen bidea, Auskalomendira daramana. Horregatik, zoritxarrez, euskal kutxetan autonomia erkidegokoak bakarrik sartuko ditut.

Hiru kutxak —oro har— sano ibili dira eta kaudimen maila gorenetan daude, uda aurreko estres frogak erakutsi duten bezala. Horrek libratzen ditu, hain zuzen, estualditik. Horrek, eta negozio oinarritzkoan duten sendotasunak, bezeroen leialtasunari esker.

EREDUA. Bi zutabe ditu egungo ereduak: gizarte garapena eta ekonomikoa uztartzen dituen egitekoa, eta herri erakundeek (% 50), bezeroek (% 43) eta langileok (% 7) hautatutako gobernu-organismoak.

Orain legeak akziodunen dirua sar daiteke kutxetan, % 50eraino. Hortik aurrera, ez da berdin izango ez gobernatzeko modua, ez eta mo-

zkinen xedea. Hain zuzen hori ekidin behar lukete euskal kutxek: diru pribatua kapitalean sartzea.

NORANTZ. Espainiako finantza-sistema eraldatzen ari da eta euskal kutxen etorkizunaz hausnarketa behar da. Ez dut uste orain arteko hipotesiek balio dutenik dagoeneko. Eta bat-egitea bera nahiko kolokan geratu da kutxa bizkaitarraren azken mugimenduekin.

Seguru asko hau ez da egungo politikariek edo kutxen agintariek lideratu dezaketen prozesua. Iraganeko porrotak errepikatu besterik ez litzukete egungo agian.

Kontua da patxadaz eta sendo aztertzea zer nolako finantza-erakundea behar duen egungo euskal gizarteak bere garapen ekonomiko eta sozialerako. Eta hori egin dezala gizartearen aurrean egoki kokatuta dagoen erakunde batek.

Emaitzarekin egingo litzateke krisiaren irteeran euskal kutxen berrantolaketa. ■

Euskara buruan eta ibili munduan.

Kultura garatzen duten ekimenei gure laguntza eskaintzea.

Gure **hizkuntza** sendotzen duten jarduerak babestea.

Eta hori guztia gogoz **abian jartzea**.

Horra **kutxak** gizartearekin egina duen hitzarmena.

KILOMETROAK

Urriak 3. Pasaia-Lezo Lizeoa

